




uk

196. zenbakia / 2011ko ekainaren 6a

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



**EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK**

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkarte
 HELBIDEA: Martikoena 16, 2. solairua 48992 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171 / Tf. 944 911 337
 ZUZENDARIA: Maitane Nerekan
 ERREDAKZIOA: Zubereroa Iturburu, Julen Nafarrate,
 Maitane Nerekan
 FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
 TESTUEN ORRAZKETA: Ziortza Vega
 KOLABORATZAILEAK: Jorje Perez, Bittor Egurola, Fredi Paia,
 Algortako Bertso Eskola eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte
 MARRAZKILARIA: Dogan Gozel
 PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Erika Martinez (944 911 337)
 AHOLKULARITZA: Jokin Aspuru
 FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
 LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
 ISSN: 1576-6799
 © Boluntzarreta



Aldizkari hau Euskal Herriko
 herri aldizkari eta euskara elkarteen
 Topaguneko partaide da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



TRATU TXARRREN
 BIKTIMAK ARTATZEKO
 EUSKO JAURLARITZAREN
 TELEFONO ZENBAKIA:
 900 940 111

Aldizkari honek
 Eusko Jaurlaritzaren
 Kultura Sailaren
 dirulaguntza jaso du



Bizkaiko Foru Aukundia
 Diputación Foral de Bizkaia
 Kulturako Saila
 Departamento de Cultura

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Lamiako Maskarada.
7. LEHEN ETA ORAIN. Plentzia.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Juan Olea.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopela 20.
Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Txalamobil herriz herri.
28. ARGAZKIA. Hileta Negurin, argazki zaharra.
30. SAKONEAN. Hauteskundeak Uribe Kostan.
34. FOTOGRAFIA. Miren Larrea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Burdin Gerikoari buruzko dokumentala Sopelan.
43. MUSIKA. Getxo Blues.
44. LIBURUAK. Fanos Naturalista Elkartearen liburuak.
45. KIROLAK. Jose Antonio Gallego, Getxo triatloi.
46. ELKARRIZKETA. Gorka Velasco komikigilea.

AMAITZEKO

49. NORA JOAN. Xabier Madrid.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Algortako "Acción Católica" taldea, 1941/42.
54. AITORMENAK. Arantxa Urretabizkaia.

Azala: Miren Larrea

www.ukaldizkaria.biz



30 Hauteskundeak

Sakonean

Uribe Kostako herrietako emaitzak aurkezteaz gain, aditu biren hausnarketak ekarri dizkizugu.



11 Juan Olea



54 Arantxa Urretabizkaia



WWW.RENAULTLEIOA.COM

Leioa
RENTACAR
 ibilgaitu-aloakirua

Tf. 682 466 466
www.leioarentacar.com

Leioa Berri Auto
 HARTU TXANDA ONLINE-CITA ONLINE
www.renaultleioa.com
 Tf. 94 480 46 02

Leihatila

> Pedro García Larragan

Bildu

Bildu izan da udal eta foru hauteskundeetan irabazleetako bat. Horretan zalantzarik ez dago. Eta garai-pen horren aurrean, PSEk eta PPK PNVri proposamena luzatu diote. Hau da, euren botoak batu Bilduk goberna ez dezan. Ez dakit PNVk zer egingo duen, baina ez dauka erraza. Alde batetik, bere 'etsai' politikoari gobernatzen uztea ez da batere eroso izan behar. Baina beste alde batetik, PSE eta PPGaz horrelako hitzarmena aurrera eroatea, seguruenik, hemendik urte bira (hurrengo euskal hauteskundeetan hain zuzen ere) damutuko zaio. Nik badaukat argi zer egingo nukeen: Bilduk goberna dezan utzi. Eurek irabazi dutelako, bai. Baina baita, boterea zelan kudeatzen duten ikusteko ere. Egia da udaletxeetan izan direla hainbeste urtean. Baina gauza bat da udal txikien kudeaketa, eta beste gauza bat Gipuzkoa osoa zuzentzea. Zelan uztartu AHTren edo Pasaiaiko portuko barritzearen ukapena, lurraldearen garapenagaz? Zelan defenditu Gipuzkoako enpresariaren interesak, eta aldi berean sindikatuen aldarrikapenak? Ez litzateke, botereak ezkerreko alderdi bat eskuindar bihurtzen duen lehenengo aldia izango. Bildu: zuen txanda.

gu geu

M-22tik haragoko bizitza

Bai irakurleok, hauteskundeetatik harago badago bizitzarik. Alderdiek egiten dituzten eta egin barik uzten dituzten bilerak egunkarietako orriak betetzen badituzte ere, eta ekainaren 11n dana erabaki bitartean, gure herrietako taberna zuloen berba gaia udaletako akordioen kinielak badira ere, Uribe Kostako auzoetan eguzkiak goizero ki-ku egiten jarraitzen du (edo ez, lainoek uzten ez diotenean).

Udaren etorreragaz batera, jaiak helduko dira txoko askotara: Leioan Txorriari auzora eta Elexaldera eta Erandion Faoetara eta Martiartura. Horrez gain, kultur eskaintza interesgarria izango dugu datozen asteetan. Alde batetik, gustu guztietarako musika eskaintza Getxo Blues jaialdian, Guaitorock-eko lagunek antolatutako maketa lehiaketan eta Leioako Pop-Rock Lehiaketako finalean. Bestetik, Burdin Gerrikoaren inguruko dokumentala ikusi ahal izango da Sopelan.

"Mens sana in corpore sano" esaldiari jarraitu eta osasuntsu mantendu gura duenak, *Getxo see week* itsasoari eskainitako astearen barruan, bela, surfa eta bestelako ur-kirolak praktikatzeko aukera izango du. Eta elkarrizketak, agenda, Portu Zaharreko bizilagunen argazki ederrak... eta hauteskundeak ere bai, beste gai askoren artean.

UK-ko lantaldea

Iritzia

Maiatzaren 28an Uribe Kostako surflariak antolatutako Itsasoruntz ekimena burutu zen Algortako Portu Zaharrean. Hona hemen igorritako testua eta irudia.

Eutsi olatuari



Ia bost urte dira lehenengoz Algortako Portu Zaharrean batu ginenetik. Itxaropena piztuz, olatua harrotzea lortu genuen orduan. Euskal Herrian zabaldutako aukera berriaren aurrean,

berriro ere olatuaren gandorrera igotzea erabaki dugu Uribe Kostako surflariok.

Prozesua atzeraezina egin gura badugu, guztiz beharrezkoa da herritarren parte hartze aktiboa. Gauzak horrela, "bustitzera" deitu gura ditugu herritar guztiak.

Gatazkaren konponbidean ez dira makalak ditugun erronkak:

- Elkarrizketa eta alde orotariko akordioa, Euskal Herri osoan eta euskal herritar guztiontzat, bazterketarik gabe.
- Eskubide zibil eta politiko guztien errespetua eta bermea.
- Giza eskubide indibidual eta kolektibo guztien errespetua eta bermea.

Herriak dauka hitza, herria da giltza. Har dezagun guztion artean gure bizitzako olaturik ederrena!

Itsasoruntz ekimena



2018KO MAIATZAREN 27A, LAMIAKO

Prudentziaren kondaira/ Maiatzaren 27an bere egun handia ospatu zuten Lamiakok: maskarada. 1978. urtean lehenbizikoz antolatu zutenetik, urtez urte, Prudentzia koitaduaren istorioa kontatzen dute Lamiakoko auzokideek. Kondairaren arabera, XVII. mendean Prudentzia izeneko emakumea Ondizko paduretara jaitsi zen semea itsasontziz zetorkiola pentsatuta. Hara heltzean, txalupa semearena ez zela konturatu, lurrera zerraldo erori eta bertan hil zen. Une hartantxe lamien kantua entzun, eta Prudentzia lamia bihurtu zen. Horregatik bataiatu ei zuten paraje hura Lamiako legez. O / Argazkia: Asier Mentxaka

Atzeko jesarlekua
estreinatu
aurretik...

Praktika ezazu!

**Gidabaimena
euskaraz**

L

STOP

Diru-laguntzak
gidabaimena ateratzeko
azterketa euskaraz egiteagatik*

**Teorikoa gehienez 150€
Praktikoa gehienez 50€
lehenengo klasean**

Getxoko autoeskolak euskaraz

ALGORTA AUTOESKOLA Tel. 94 460 94 43 AMEZTI AUTOESKOLA Tel. 94 491 09 15 ARIAS AUTOESKOLA Tel. 94 463 88 57 / 94 430 11 44 / 94 463 00 19 GETXO AUTOESKOLA Tel. 94 430 25 71 PRECIADO AUTOESKOLA Tel. 651 961 901 SAN INAZIO AUTOESKOLA Tel. 94 460 00 45 URIBE KOSTA AUTOESKOLA Tel. 94 430 06 05

Informazio gehiago: 94 466 00 11

*17-23 urte artekoentzat



Iraganez doa denbora* beti / ISUZKIZA AUZOA, PLENTZIA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > arazo zorrotzak



2011ko otsaila, Urduliz

Testua: **Peio Arondo** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

* Doinua: Zu ez zarenean dena

Lau atzazkal, bi belarri nahiz (e)ta saguen ustean dauden doilorren parean, ez dira horren beldurgarri; baina ere gaude larri hildako heroiak salbu beldurtiak baigara gu, (e)ta arazoak sortzean konpontzen jakin ezean edonor bihurtzen da sagu.

Tigre handi-handi batean bihurtu da katutxoa, baina gure kartutxoa jarriz gero jo (e)ta kean, indarra dugun artean, kopeta izerditan blai, nahiz eta tiro ez egin nahi handituz doa problema baina argi dago garena katua usatzeko gai.

Iraganean etsaia zen gure arazo hura katu gaiztoen modura hiltzea ez da izan behar nahia; agian lagun alaia izango baita gerora arazoari lepora eta lepokoa jarri lagun egilea sarri izaten baita denbora.

Uribitakoran parte hartu gura duzu? Bidal egiguzu atal honetan agertzea gura zenukeen argazkia eta bertan ikusiko duzu, bertso eta guzti: uk@aldizkaria.biz



COMERCIAL de LIMPIEZA VILLAR S.A.

Harritzeko moduko kalitatea!

- Garbiketa orokorrak
- Mantentze garbiketa
- Garbiketa industrialak
- Itsasontzi garbiketa
- Ospital garbiketa
- Lan osogarrria
- Elikagai Industriak higienizatzea, garbitzea eta desinfektatzea.
- Legionellaren kontrako tratamenduak
- Airestatze tutuak, aire girotuak eta hodi industrialak garbitzea.



Andres Isasi 11, Behe ezkerria (Bilbo) Tf. 94 470 06 69 Fax.94 443 78 81 e-posta: bilbao@limpiezasvillar.com

getxo > jaietan txosna jartzeko eskaera egin daiteke

Info+: www.getxo.net

San Inazio, Romo eta Portu Zaharreko jaietan txosna ipintzeko eskaera aurkez daiteke ekainaren 10era arte. Udalak hainbat baldintza ipini du txosnak esleitzeko. Eskaera egin duten elkarteek, “*Getxoko Elkartearen Erregistroan apirilaren 1a baino lehen izena emanda eduki behar dute, probagarriak diren egonkortasuna eta kaudimena eduki, bai eta udalerrian errotuta izan eta urtean zehar tokiko erkidegoagaz lotutako beste proiektu batzuetan parte hartu beharko dute*”. Gainera, “*isunik ez dute izan behar 2010ean txosnak esleitzeko baldintzak ez betetzeagatik*”. Saninaziotan lau txosna handi –bina talde txosnako- eta alkoholik bako beste bat –elkarte bakar baten ipintzeko baimena emango du Udalak. Romon, bost txosna txiki –talde bana txosnako- edo bi handi –bina talde txosnako-, eta Portu Zaharrean lau txosna handi –bina talde txosnako-. Handiak 9 x 4 metrokoak izango behar dute eta txikiak 6 x 4 metrokoak. ○

leioa > pop-rock lehiaketako finala ekainaren 17an izango da



Leioako Quaoar taldea dago finalisten artean

Leioako XI. Pop-rock Lehiaketaren finala ekainaren 17an izango da, 21:30ean. Barandiaran Behekoa Institutuan egingo dute eta kontzertura sartzea doan izango da. Lehiaketak kategoria bi izango du: metal eta pop-rock. Metal mailan lehiatuko dira Averno (Leioa-Asua), Ero (Bizkaia) eta Quaoar (Leioa). Pop-rock mailan, barriz, Enkore (Bilboko Errekalde auzoa), Last Fair Deal (Leioa) eta Love Division (Madril) taldeen artean izango da norgehiagoka. Maila bakoitzeko irabazleak 1.800 euro jasoko du eta diskoa grabatuko dute bakoitzaren abesti bigaz. Leioako talderik onenari 600 euroko saria emango diote, eta beste hainbeste euskarazko abesti onenari. Gainera, ikusleen saria irabazten duen taldeak Leioan zuzenean jotzeko aukera izango du. ○

saiazgetaria

HOTELA

Roke Deuna 25
20808 Getaria
Gipuzkoa





[...harria](#) [...lehengo garaiak...](#) [...itsasoa](#)

www.saiaszgetaria.com / info@saiaszgetaria.com / Tf. (+34) 943 140 143

euskara > beharsarea, euskarazko lanak bideratzeko webgune barria

www.beharsarea.net

Getxon euskarazko lanak bideratzeko internet ataria sortu dute: www.beharsarea.net. Norabide bi dauzka guneak, euskarazko lana bilatu eta eskain daiteke: tabernari, begirale, dendari, entrenatzaile, begirale, klase partikularretarako irakasle, ume zaintzaile eta bestelako lanpostuak betetzeko eta lortzeko erabil daiteke sarea. Batetik, euskaraz lan egiteko lagun bila dabilzan enpresa, partikular edota dendarik ipin dezake iragarkia. Bestetik, lan horiek euskaraz egiteko prest dauden lagunek ere ipin dezakete iragarkia. Hartara, erraz topatuko dute bilatzen dutena batzuk eta besteek. Getxoko Egizuk abiatutako egitasmoa da Beharsarea eta Udalak laguntzen du, baina internet bidezko proiektua izanik, udalerrira bera gaintzen du eta edozeinek parte har dezake. Euskaldunak ere langileak garelako, euskararen normalizaioan laguntzeko beste aurrerapauso bat egitera dator Beharsarea; sartu eta ikusi! ○

aisialdia > ultraheroien udalekuetan izena eman daiteke



info+: www.eragintza.biz

Basoko eta kostaldeko ultraheroien udalekuak antolatu ditu uztaileko eta abuzturako Eragintza Kultur Erakundeak eta Bizkaiko Urtxintxa Eskolak. Egitasmo barria da, 8 eta 16 urte bitarteko ume eta gazteei zuzendutakoa, eta astialdi hezitzailean oinarritutako dira. *Mundua eraldatzera goaz!* lelopean elkartuko dira begirale eta gazteak Aulesti zein Kotorrioko aterpetxeetan. Elkarbizitza, hezkidetzak, kritikotasuna, partaidetza aktiboa, kulturartekotasuna, ingurunearekiko eta elkarrekiko errespetua, emozioak, baikortasuna eta inklusibitatea landuko dituzte, *“betiere euskararen erabileraz gozatzeko proposamen erakargarriak”*. Ekainaren 10era arte izena eman daiteke. Informatzeko: 94 432 04 45, www.eragintza.biz edo eragintza@eragintza.biz. ○



“Ez zitzaidan burutik pasatu Urdulizko alkate izatea. Eta azkenean, hogeitun urte”

Juan Olea > Hogeitun urte Urdulizko alkatetzan

Asko aldatu da Urduliz azken hogeitun urtean: udaletxe barria, kiroldegia, kultur-etxe modernoa, industria eta nekazaritzaren gainbehera, gaztetxea okupatu eta desalojatu, etxebizitzak eraiki... Baina bada azken hogeitun urtean Urdulizen aldatu ez den zer edo zer: alkatea. Juan Oleak hogeitun urte bete du alkatetzan, baina azken hauteskundeak baino lehen makila uzteko erabakia hartu zuen: *“Gogoa nuen uzteko, azken garaia luze egin zait”*. Oleak azpimarratzen duen legez, kasualitatez hasi zen politikan: *“Mecánica La Peñan egiten nuen behar eta asko bidaiatzen nuen. Ez zitzaidan burutik pasatu Urdulizko alkate izatea. Eta azkenean, hogeitun urte”*. Udaletxea uzteko aroa heldu zaio 70 urteko urduliztarrari, eta maletak momentu on eta txarrakak beteko ditu: *“Gatxena hasierako urteak izan ziren, diru oso gutxi zegoelako proiektuak aurrera eramateko. Onenak azken urteak izan dira, Elortza eta metro geltoki ingurua zerbitzuakaz lotu dugulako”*. Bere lekukoa hartuko duenarentzat, aholku bakarra du: *“Baietz esatea politena da alkate batentzat, baina batzuetan ezetz esaten jakin behar da”*. Udaletik kanpo, Oleak familia eta lagunakaz beteko ditu egunak: *“Nire zaletasun nagusia ehiza da, baina hankak gero eta pisutsuagoak egiten zaizkit...”*. Alkatetzan utzi ostean, politika kontuak albo batera uzteko asmoa du: *“Alderdi bateko afiliatua naiz, ez politikaria”*. ○ Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Julen Nafarrate**

inprimategia + kartelgintza + erakustegi mugikorrek + scanner & txosten kudeaketa + erreprografia

Areetan

Villa de Plentzia, 6.
T 94 464 90 87
E areeta@cianoplan.es

cianoplan
GLOBAL PRINTERS

BARAKALDO . BILBAO . GETXO . ZAMUDIO

902 103 763
www.cianoplan.es

Zabala Eskola mendeurren jaia

100 urte beteko ditu aurten J. Bta Zabala Eskolak eta hori **ospatzeko egun osoko jaia** prestatu dute **hilaren 25erako**; herri-bazkarirako txartelak eros daitezke daborduko

Eskualdeko eskola gutxi lortu du 100 urte betetzea, horregatik behar bezala ospatu gura du urteurren biribila Juan Bautista Zabala eskolak. Hilaren 25erako gauera arte luzatuko den egitaraua prestatu dute. Ume zein helduentzako eskaintza egongo da eta parte hartu gura duen orori zabalik dago ospakizuna.

Milaka ume getxoztar pasa dira J. Bta Zabala Eskolako geletatik. Egurrezko mahaiak, tintontziak eta idazlumak laneako tresna bakarra zuten garai horiek urrun gelditzen dira; umeek xiba eta soka saltoan olatuz ematen zuten atsedendia orain 100 urte. Gaur, ordenagailuak dira eskolako ume eta gazteen tresna nagusia eta atsedendian etxean duten Wii kontsolak betetzen ditu elkarrizketak.

Ibilbide luze hori merezi bezala ospatu gura dute Zabala Eskolako irakasle, guraso eta umeek. Horretarako urte osoa daroa beharrean ospakizunerako sortutako Mendeurren Batzordeak. Martxoan hasieran dirua batzeko eta egun handirako motorrak berotzeko jaia egin zuten.

Ekainaren 25erako goizetik gauerako egitaraua prestatu dute, getxoztar danei zein inguruko herrietatik hurbildu gura dutenei zabalik egongo dena. 10:30etik 12:00etara, eskolako umeek urtean zehar prestatutakoa erakutsiko dute Biotz Alai plazan. Gela bakoitzak lan bat eskainiko du: dantzak, kantak, txistek e.a. Hori



Aratusteetan antolatutako jaiko irudia

amaitutakoan eskolako patioa hurbildu eta ekitaldi nagusiari hasiera emango diote 12:15ean. Bertan, Eusko Jaurlaritzako, Getxoko Udaleko eta eskolako zuzendaritza taldeko ordezkarien berbak izateaz gain, txalapartariak, aureskua,

«Bazkarirako tiketak 12 (umeak) eta 18 (helduak) euroan eros daitezke eskolan bertan»

bertsolariak, Biotz Alai abesbatza eta trikitilariak izango dira. Ondoren luntxagaz sabela bete eta 13:30etik 15:00etara triki-poteoa egingo dute herrian. Txikientzat, magia saioa egongo da eskolako patioan Tor Magoaren eskutik.

15:00etan herri-bazkari erraldoia egingo dute Biotz Alai plazan. 400 txar-

tel salduko dituzte, 200 umeentzat eta gainontzekoak helduentzat. Dagoeneko salgai jarri dituzte, 12 (umeak) eta 18 (helduak) euroren truke; eskolan bertan 09:00etatik 09:30era eta 16:15etik 16:45era, zein Kala dendan (Basagoiti Etorbidea), Taberna Berrin (Sarrikobaso) eta Prink dendan (Algortako Etorbidea) eskura daitezke.

Arrastian umeentzako puzgarriak, tailerrak eta jolasak egongo dira eskolako patioan 16:30etik 19:30 arte. 18:30ean askaria eta txokolatadagaz energia barritzeko aukera izango dute txikiek. Egunari parranda giroan agur esateko, Hakker taldearen erromeriagaz amaituko da ospakizuna. Zorionak Zabala eta ehun gehiago izan daitezela! ○

Info+: ampazabala@gmail.com

Informazioa pantailan

Hamar pantaila jarriko dituzte herri osoan



Hiru pantaila jarri dituzte eta beste zazpi jarriko dituzte datozen hiletan

Batek baino gehiagok harriduraz begiratu die Algortako Geltokia plazan, Borobian eta Bizkaiko Zubian maiatzean jarri zituzten pantailari. Batzuk ukitzera ere ausartu dira. Ekonomia Sustapeneko sailak bultzatutako "Getxo Gertu" ekimenaren barruan, jada dauden hiru pantailari beste zazpi gehituko zaizkio Algortako Tellagorri plazan, Areetako Eskoletako eta Geltokia plazetan, Romoko Santa Eugenioan, Andra Mariko Kiroldegian, Kirol Portuan eta Turismo Bulegoan. Herritarrentzako informazio guneak dira pantailak eta "udalerriko merkatal eta enpresa jardueraren dinamizazioarako tresna" izatea dute helburu.

Dispositibo bakoitzak 46 hazbetetako pantaila bi ditu. Bata, agenda edo udal web gunea bezalako informazioa kontsul-

tatzeko; besteak, eguraldiaren aurreikuspena edo getxoztarrentzako eta bisitariarentzako oharra eta albisteak erakusten ditu.

Horrez gain, Google Maps geokopien baliabide bidez, denden, tabernen eta jatetxeen kokapena kontsultatzeko aukera ematen du merkatal, ostalaritzako edo zerbitzuetako jardueraren araberako bilaketa eginez edo establezimenduen izenaren arabera. Aukeraturako lekuari buruzko informazioa ere jaso ahal izango du herritarrak posta elektronikoen edo sms-en bidez edozein smartphonetan. Udalerriko merkataria eta ostalariei datu base batean negoziari buruzko informazioa sartzeko aukera emango zaie, ukipezkoa ez den pantailan publizitate moduan iragartzeko. ○

MERTZERIAN ERE EUSKARAZ KANPAINA

Gehi Euskara Merkataritza egitasmoaren barruan, aurretik harategi, okindegi, arrandegi eta kirol dendetan egin bezala, mertzterietan euskaraz eskatzearen aldeko kanpaina abiarazi du Euskara Zerbitzuak. Informazio-orrria kaleratu dute mertzterietan batzeko ohiko salgai batzuen irudi eta izenak, euskaraz eta gaztelaniaz. Egitasmoagaz bat egin duten 16 mertzterietan, informazio-kartelak jarri dituzte. Aipatu dendetan euskaraz eskatzen duenak, bidaia-jostotzara txikia jasoko du opari.

UDAL INFORMAZIO GEHIAGO SMS BIDEZ

Udalak SMS bidaltze sistema handitu du, merkataritzarako, ostalaritzarako eta enpresa mundurako segurtasun abisuek eta Andres Isasi Musika Eskolako ikasleentzako informazioagaz. Duela hiru urte zergak helbideratzeagatik eragindako karguen barri emateko sistemagaz jarri zuten martxan doako zerbitzua. Azken barrikuntzei esker, aurretik euren eskuko telefonoaren zenbakia eman dutenek inguruan izandako iruzurrez, billete faltsuez edo bestelako delituez ohartarazteko testu-mezuak jasoko dituzte. Segurtasun mezuak jaso gura dituenak Udaltzaingogaz jarri behar du harremanetan.


Info+: 94 466 02 02

SENDI TXANGOIA ETA KANTU TAILERRA

Zabalik dago oraindik Egizu Getxo Euskaldun Elkarteak Sendi egitasmoaren barruan ekainaren 17 eta 18rako antolatu dituen ekimenetan parte hartzeko izen-ematea. Alde batetik, Gorlizko Arrien kanpinera txangoa antolatu dute 17 eta 18rako. Bertan kanpin dendak jarri eta suaren inguruan gaubela ederra egiteko aukera emango dute 15 ume eta horien gurasoei. Horretan izen-ematea hilaren 10 arte dago zabalik. Bestalde, 18an, euskal-kantu tailerra egingo dute; horretan 14a arte eman daiteke izena.

Info+: www.egizu.org/sendi

Etxeart
Eraikuntza / Barrikuntzak
Zurezko Egiturak



Sagastikoetxe Industrialdea
Etxalde 2 - Pabiloi 11
48630 Gorliz

Mob.: 607 148 346
Tel.: 946 773 144



<http://www.etxeart.com>

Gaztetasuna Aisialdi Taldea > I. Gómez, A. Olabarrieta, E. García

“Boluntarioak gara eta aisialdian umeak eta gazteak hezi baino ez dugu gura”



Irene Gómez, Eneko García eta Ander Olabarrieta begiraleak

Orain 35 urte inguru, herriko neska-mutil koadrila batek aisialdi taldea sortzea erabaki zuen. Algortako Redentor elizan aurkitu zuten euren ekintzak aurrera eramateko espazioa. Gaur egun 70 haur eta 14 begiralek parte hartzen dute Gaztetasuna Aisialdi Taldean. Orain hil batzuk, Redentor elizako arduradunek, datorren ikasturtean lokala utzi behar dutela jakinarazi zieten, “kristau hitza” lantzen ez dutela eta euren ordezkari beste talde bat sartu behar zela argudiatuz. Irene, Eneko eta Ander begiraleek gertatutakoa zabaltzeko gogoz hurbildu dira UKra.

—Nola sortu zen Gaztetasuna taldea?
—Neska-mutil batzuk batzen hasi ziren, mendira joateko eta ekintzak antolatzeko. Hasi eta gutxira, umeak beharrez hasi ziren. Hasieran garaje batean zeuden eta kotxeak garbitzen zituzten dirua lortzeko. Handik gutxira Redentorreko lokala eskaini zieten. Garai horretan, nahiz eta aisialdi taldea izan, gura zutenentzat baze-
goen “fede aukera”, skautak bezala.
—Gaur egun zer egiten duzue?
—70 ume eta 14 begirale gaude eta zapa-
turo 16:30etik 18:00etara batzen gara.

Jolas eta tailer bitartez laguntasuna, erres-
petua, eta bestelako baloreak lantzen
saiazen gara. Umeak taldea eta neska-
mutilen arteko harremanak lantzen ditu-
gu batez ere; 14 urtetik gorakoak barriz,
kontzientzia kritikoa lantzen dugu.
—Zein da orain duzuen arazoa?
—Taldearen sorreratik datorren auzia da.
Joan den urtean Redentorrekoek erlijioa
landuko genuen galdetu ziguten. Ezezkoa
emanez gero ez zela arazorik egongo esan
ziguten. Guk ezetz esan genuen; ez
genuela erlijio kristaua lantzeko beharrik

ikusten, hori lantzeko beste leku batzuk
daudela. Bat-batean, datorren ikasturtean
lokaletik joan behar dugula esan digute.
Mugitzen hasi gara eta prentsara deitu eta
manifestaldia antolatu dugu.

—Zein izan da Redentorreko arduradu-
nen erantzuna?

—Gutun bat idatzi diete gurasoei esanez
guk bost arau betetzen baditugu lokala

**«Materiala gordetzeko
biltegia utzi ahal digutenei
zabaltzen diegu deia»**

utziko digutela. Horregaz, diskurtsoa alda-
tu dute, eurak bota ez gaituztela argudia-
tzeko. Arau horiekaz eurak proiektu guz-
tiaren zuzendaria izatea, begirale kristauak
sartzea eta horrelako beste hainbat irizpide
inposatu gura digute.

—Zer iritzi duzue horren aurrean?

—Ezin dugu hori onartu inondik inora.
Gutuna gurasoakaz ondo gelditzeko egin
dute. Aisialdi talde kristau barri bat sartu
behar dela esanez justifikatzen ere saiatu
dira, baina guk erantzun diegu prest gau-
dela lokala partekatzeke. Ezetz esan digu-
te. Non daude euren kristau baloreak?
Boluntarioak gara eta umeak hezi baino
ez dugu gura. Guk ez dugu kristautasuna
ukatzen, ez dugu horren inguruan galde-
tzen eta listo. Orain Trinitarioen
Komunitatearen ardura dela esan dute.

—Alternatibarik bilatu duzue?

—Udalagaz harremanetan jarri gara eta
laguntzeko prest agertu dira; bilatzen dau-
dela esan digute, baina zaila dela. Etor-
kizuna taldekoek ere euren lokala eskaini
digute. Zapatuko ekintzak egiteko guneaz
gain, materiala gordetzeko biltegia behar
dugu eta hemendik lagun diezagukeen
edonori zabaltzen diogu deia. ○

Info+: gazte_tasuna@hotmail.com

Itsasoari begirako astea

Udalak antolatuta **itsasoari lotutako
hamaika ekimen** egingo dira **20tik 26ra**



Surf ikastaroak egingo dituzte Getxo Sea Week-en barruan

Bigarren urtez Getxo Sea Week itsaso-
ari begirako astea antolatu du Udalak
20tik 26ra. Turismoari begirako ekimena
da itsasoaren astea eta kirol eta kultura
ekimenak batzen ditu. Herriko zenbait
enpresa, elkarte eta erakunde publikok
hartzen dute parte, Getxo Surf kirol tal-
dea, besteak beste. Turistentzat asteburu
pasa eskaintza bereziak antolatzeaz gain,
bisita gidatuak eta itsas kiroletako ikasta-
roak antolatu dituzte.

Erakusketa eta tailerrei dagokienez,
itsasontzi eta surf taula zaharren erakus-
keta, Saltillo ontzira eta Aquariumera
ateak zabalik jardunaldiak eta arrantza

sareak egiteko tailerra egingo dituzte.

Musika eta antzerki atalean, abesba-
tzen eta musika talde gazteen kontzertua,
eta Portu Zaharreko antzinako bizimo-
duari buruzko antzerkiak izango dira
nagusi.

Nasapunta eta itsas postalen lehiaketa
ere antolatu dute, azken hori gaztetxoiei
begira.

Azkenik kirol ikastaro eta erakustaldi
eskaintza zabala egongo da: bela, surf eta
stand up paddle ikastaroa, estropada eta
urpekaritza bilkura. Batzuk doan izango
dira eta besteak ordaintzekoak. ○

Info+: getxoseaweek.com

GETXOKO DANTZA ESKOLEN ERAKUSTALDIA

Getxoko dantza eskolek XVIII. Getxoztar
Dantza Eguna ospatuko dute hilaren 10, 11
eta 12an. Urtean zehar egindako lana
jendaurrean aurkezteko, dantza
erakustaldiak egingo dituzte eskoletako
ikasleek Biotz Alai plazan. Barikuan,
18:30etik aurrera, Ana Lararen Dantza
Estudioa eta Dantzarte Eskola ikusi ahal
izango dira. Zapatuan, 12:30ean, Romoko
Carmen Vera eskolaren txanda izango da.
Domeka eguerdian, Areetako Flamenko
Eskolak itxiko du erakustaldia.

HITZALDI SORTA ALGORTAKO KASINON

Ikasketa Bolivartiarren Elkarteak antolatuta
eta Getxoko Udalak, Algortako Kasinok eta
LN (Pro Libertate Nabarra) elkarteak
lagunduta, Amerikaren independentziaren
200. urtemugaren inguruko hitzaldi sorta
eskainiko dute ekainaren 15ean, 19:00etatik
aurrera Algortako Kasinon. Adelaide
Daraspe Montrealgo Unibertsitateko
irakasleak Amerikako euskal diasporaren
inguruan egingo du berba. Yolanda Rojas
Urbina Venezuelako kontsulak “*La
influencia del espíritu bolivariano en las
naciones del ALBA*” hitzaldia eskainiko du.
Azkenik Tomás Urzainqui historialari
nafarrak, “*Xabier Mina en la independencia
de México y sus relaciones con Simón
Bolívar*” gaia jorratuko du.

SORMEN TOPAKETETAN IZEN EMATEA ZABALIK

Aurreko zenbakian aurreratu bezala, hilaren
28 eta 29rako sormen topaketak antolatu
ditu Udalak Izarren Distira ekimenaren
barruan. 12 eta 18 urte bitarteko gazteen
artean euskararen erabilera sustatzea
helburu du ekimenak. Topaketetan dantza,
musika, antzerkia eta bideogintzaren
inguruko tailer edo ikastaro trinkoetan parte
hartu ahal izango dute gazteek eta bertan
ikasitakoagaz, irailean kale ekintza bat
antolatu ahal izango dute. Topaketa doakoa
izango da eta 14a arte eman daiteke izena.

Info+: info@izarrendistira.com

lagusana
liburuak eta letra txikia

Basagoiti etorbidea 59
(Tellagorri plaza)
48991 ALGORTA
Tf. 94 491 14 12
lagusana@lagusana.net

Ricardo Fuentes Gómez > idazlea

“Idatzi, barrukoa atera eta esperientziak jendartearen zerbitzura ipintzeko ilusioa neukan”

Laneko erretiroa hartuta betiko zaletasunari gogotsu ekin dio Ricardo Fuentes Gómez leioztarrak, eta poema liburua idatzi du: *La ruta de la vida y del amor*. Errezitaldiakaz aurkezten dabil hara eta hona.

—Nonbait irakurri dut zure poemak atzera begirada bat direla, baina era berean, itzaropenari abesten diotela...

—Josu Monterok esan du, kontraportada egin dit, antzerki idazlea da. Txikikeriak nabarmen ditut, maitasunaren gauza ederrak, maitasunik eza, gustukoak ez diren lanak, egoera kaxkarrean bizi diren pertsonak e.a. Gai sozialak landu ditut. Hasieratik akabura, edozein pertsonaren bizitza garapena irudikatu dut. Heriotzari buruzko poema ere egin dut. Hileta nolako gura zukeen kontatzen du, izan ere, bizitzaren parte da heriotza, beldurra diogu baina ez dugu baztertu behar, naturaltasuna bilatu behar dugu.

—Monterok esan du poemetan antze-man daitekeela hitzak sortzeko eta beste-ei eskaintzeko guraria, ados zaude?

—Erabat. Esperientziak poemetan irudikatzen saiatu naiz, nireak zein ingurukoenak, bizitzea merezi duela erakusteko.

—Noiztik daukazu idazteko zaletasuna?



Bizitako esperientziak izan ditu inspirazio iturri

—Umetatik lan egin behar izan dut eta negar egiten nuen eskolara joan eta ezin nuelako. Nobela bat idazten hasi nintzen 12 urte gaz, beti izan dut zaletasuna. Bizitza osoan idatzi dut, baina poesiarako pausagunea behar nuen, eta batez ere, erretiratu naizenetik idazten ditut poemak. Bigarren poesia liburua idazten nabil, baita nobela bat, baina azken hori lasaitasun handiagoagaz.

—Zer ematen dizu idazteak?

—Nire buruagaz barriri egin dut topo, barruan neukana ateratzen ari naizelako. Idazteko, barrukoa ateratzeko eta nire burua aurkitzeko ilusioa neukan, baita hitzak eta esperientziak jendartearen zerbitzura ipintzeko ere. Jendeari laguntzen saiatu naiz beti, amamarengandik ikasi nuen. Norbaitek esaten didanean zer polita den idatzi dudana eta hori sekula pentsatu ez duela, nire hitzek zerbaiteko balio izan dutela pentsatzen dut. ○

Badatoz sanjuanak!

Elexaldeko jaiak **ekainaren 23tik 26ra** izango dira, **sua** prestatzen has zaitezketen



Txupina jaurti ostean egingo dute koadrilek jaitsiera, ekainaren 23an

Akelarrearen jaiak hurrago ditugu apurka, laster elkartuko dira lamiak eta galtzagorriak suaren inguruan dantzan. San Juan jaiak izango dira ekainaren 23tik 26ra, eguenetik domekara. Hamaika ekitaldi izango da, hona zenbait ekitaldi:

Arrastiko 19:00etan jaurtiko dute txupina Mari Pepak eta Arlotek udaletxetik, ekainaren 23an. Txosnak 21:30ean zabalduko dituzte. San Juan gau magikoan suak piztuko dituzte han hemen, eta Akelarrea egingo dute txosnetan 24:00etan, erromeriak girotuta. Ikea Barrin ere erromeria izango da, eta Chulito Camachoren eta El Sintomaren kontzertua Aldapan. Koadrilen arteko

probak egunero izango dira.

Barikuan umeentzako ikuskizuna izango da Euskal Etxeen plazan 17:00etan. Kontzertuak 23:00etan hasiko dira. Txosnetan joko dute Basaki eta Gosek, eta Sakonetan Esne Beltza eta Sorkunek.

Zapatuan Baketazo, Estricalla eta Ze Esatek! izango dira txosnetan eta Iguana Tango eta La Guardia Sakonetan. Jolasak eta lehiaketak ere egingo dituzte egun osoan zehar.

Domekan barriz, azken egunean, erromeria izango da Txomin Arestin 17:00etan, goitibeherak Bulebarren 18:00etan eta karaoke-poteoa txosnetan 19:00etan. Hartu arnasa eta aurrera! ○

TXORIERRIKO JAIAK EKAINAREN 10ETIK 12RA

Txorierriko jaiak iritsi direla eta dena prest dago. Ekainaren 10ean botako dute txupina. Umeentzako jolasak eta erromeria, txokolate-jana eta kontzertuak izango dira, Baketazo eta Sabotaje taldeakaz. Zapatuan egingo dituzte herri krosa, tortilla txapelketa zein sardina-jana, besteak beste. Gainera, magia ikuskizuna izango da eta erromeria eskainiko du Hakker taldeak. Domekan amaituko dira jaiak, baina ez dira faltako jolasak, lehiaketak, tailerrak eta musika ikuskizunak. Ondo pasa!

SANJUANETARAKO BEROKETA, 18AN

San Juan jaietarako beroketa antolatuko du Jai Batzorde barriak ekainaren 17 eta 18rako. Egun bietan Pintxo Lehiaketa izango da tabernen artean eta barikuan kalejira egingo dute 20:00etan. Zapaturako indarra hartu beharko da, Tigre plazaren inguruan ez baita faltako zereginik. Sukalderitza txapelketa izango da goizean, 10:00etan eman behar da izena eta 14:00etan kazola aurkeztu. Eguerdian izango dira umeentzako jolasak eta Antzineko Eguneko Kantu-poteoa; animatu eta baserritar jantzi! Bazkaldoan egingo dituzte Edabe Magiko Txapelketa eta koadrilen arteko jokoak. Kalejira 19:30ean hasiko da eta 22:00etan erromeria eskainiko du Joxpak. Segi festara!

ESPETXEA EGIN GURA DUTE HERRIAN

Orain aste batzuk iragarri zuten Espainiako Barne Ministerioak Leioan kartzela egin gura duela, Kukularra eremuan. Zabaldu dutenez, hirugarren graduan dauden presoak hartuko lituzke espetxeak, Basaurin baitago 24 ordutarako espetxea. Kukularrako lurrak 325.000 euroren truke erosi dituzte, baina herriko hainbat alderdi proiektuaren aurka agertu da. Euskal Herrian beste hiru kartzela eraiki gura du Barne Ministerioak datozen urteotan.

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre 2
Tf. 94 463 00 45 - LEIOA



Carrefour

Viajes

Bidaia-agentzia berria Leioan

Estartetxe 19, Tf. 944 63 82 42

es_viajes1375@carrefour.com

Bidaiak guztien eskura



Luberr Basolanak, SL
Axpe ibaiertza 28A
beheko solairua B12 lokala
Erandio (Blzkaia)

Mugikorra: 629 41 18 38
Tf. :94 467 17 13
Faxa: 94 467 42 41
luberr@euskalnet.net
www.luberr.biz

- Soropila ezartzea

Lurzorua prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtsezko ongarritze lanak eta ereite lanak.

- Seropila zaintzea eta mantentzea

Moztea, ureztatzea, ongarritzea, egurastea, aratzea eta destrinkotzea, berrelikatzea, soropil gaitzak eta belar gaiztoak tratatzea.

- Inausketak

Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zuhaixka apaingarriak inaustea, erabateko inausketak.

- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

[erandio]

Marta Ortiz > diseinatzailea

“Emakume artistei euren lekua eman gura izan diet, merezitako oihartzuna kendu baitzieten”

Artearen historiak pasa diren emakume artistei buruz aritu zen Marta Ortiz Erandion, maiatzaren 31n, Berbotsek gonbidatuta. Ezezagunak diren emakume horiei zor zaien lekua egin die.

—Azterketa egin duzu eta hitzaldian kontatu dituzu emaitzak.

—Diseinatzailea naiz, baina beti izan dut arteagaz harremana. Konturatu nintzen Pizkunde garaitik gaur arte emakumeek artearen historian zer funtzio bete duten kontatzen duen inbentariarik ez zegoela. Ez da erregistratu emakumeek egin duten papera; historian ez da islatu, baina egon, egon da. Soziologikoki atzerago kokatu zituzten emakumeak, baina euren lana ez da gizonezkoena baino txarragoa. Velazquezen garaian bere mailako emakume margolariak izan ziren, baita beste garai batzuetan ere. XX. mendean aldaketa dago, belaunaldi berrietan alderik ez dago gizon eta emakumeen artean.

—Beraz, ikertu behar izan duzu.

—Deskubritzen ari nintzen artistak ikertu, eta pisuzko artistak daudela ikusi nuen. Dokumentazio lana egiten hasi nintzen, sasoi bakoitzean zer emakume zegoen jakin nahi nuelako. Artista asko egon da, baina ohiko publikoak gutxi



Euskal emakume artistei buruz bideoa ere egin du, harrobi polita ei dago

ezagutzen du.

—Nola lor liteke informazio hori dena?
—Informazioa egon badago, baina ez inbentariarik. Artista haiei buruzko informazioa badago, baina gehienbat ikuspegi feministatik eginak. Nik arteari eman diot lehentasuna kasu honetan, ez da proiektu feminista. Artista bezala, euren lekua ematea izan da kontua, besterik ez. Merezitako oihartzuna kendu zieten, artista txarragoak ziren gizonak dira emakume horiek baino askoz eza-

gunagoak.

—Hitzaldian eman duzu horien barri?
—Erakusketa formatua eman gura izan diot, diaporama bidez. Pizkundetik gaur egunera emakume horien lana, bizitza eta artearen mundura sartzeko izandako zailtasunak ikusteko aukera eman dut, askoz historia ikaragarriagoak dituzte, Pizkundean batez ere, bortxaketak eta guzti pairatu zituzten. Euskal emakume artistei buruzko bideoa ere egin dut, harrobi polita baitator. ○

Faoeta eta Martiartu

Datorren **asteburuan** ospatuko dituzte **jaiak** auzo bietan, **ekainaren 10 eta 13** bitartean



San Bernabe basiliza, Faoeta auzoan

Jaiak biderkatzen hasi dira Euskal Herrian, baita gurean ere. Horren lekuko da Erandio, ekainaren bigarren asteburuan ospatuko dituzte jaiak Martiartun eta Faoetan.

Ekainaren 10ean hasiko dira ospakizunak Martiartun eta 13 arte luzatuko dira. Barikuan berbera eskainiko du Trikizio taldeak 23:00etatik aurrera. Zapatuan arrastitik egongo da giroa, 17:30ean izango da sokatira 640 kilotan eta bertsolariek kantatuko dute ondoren. Gauean kontzertua emango dute Itziarren Semeak, Gora Herria eta Auskalo Non taldeek, 23:00etatik aurre-

ra. Domekan idi-probak egingo dituzte 18:00etan eta astelehenean meza izango da, San Antonio egunez.

Apur bat laburragoak izango dira Faoetako jaiak, ekainaren 10etik 12ra. Barikuan igel-toka zein tortilla txapelketak jokatu dituzte arrastiz eta dantzaldia izango da gauean. Biharamunean, San Bernabe egunez, kalejira egingo dute eta Taberna Ibiltariak girotuko du eguna herri bazkarira arte. Arrastian izango dira pailazoak eta txitxiburduntzia, eta gauez dantzaldia. Domekan ere egongo da non parte hartu: kalejira, tiragoma txapelketa eta euskal dantzak ikusi ahalko dira. ○

BEKA ASUAKO PORTUAREN HISTORIA BERRESKURATZEKO

Desagertutako Asuako Portua funtsezkoa izan zen Ertaroan Bizkaiko meatzetatik ateratako burdina Kantauri itsasora iritsi zedin. Itsasadarrak mende batzuk geroago bizi izan zuen industrializaioaren aurrekari izan zen portua. Zor zaion garrantzia berreskuratzeko urtebeteko beka sustatu dute Udalak eta Eusko Ikaskuntzak eta 6.000 eurogaz lagunduko dute. Erakundearen webgunean eskura daitezke oinarriak beka eskatzeko: www.euskoikaskuntza.org.

MUSIKA ESKOLAKOEN KONTZERTUAK

Ikasturtea amaitzean eta Musika Eskolan ikasitako jendaurrean erakusteko unea dute ikasleek. Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean eta Erandiogoikoan egingo dituzte entzunaldiak. Josu Muruetan izango dira lehenak. Ekainaren 8an haize tresnen entzunaldia eskainiko dute, 9an gitarrarena, 13an soka tresnena eta 16an akordeoiarena. Hilaren 21ean eta 22an hainbat musika tresnagaz eskainiko dituzte kontzertuak. Erandiogoikoan, barriz, ekainaren 23an izango da entzunaldia, Andra Mari elizan. Gogorarazi beharra dago Musika Eskolako ikasle barriek datorren ikasturterako matrikula egin dezaketela ekainaren 15era arte.

TIRANTEK LAGUNTZA BERRESKURATU DU

Noviembre Kulturalerako dirulaguntza berreskuratu du Lutxanako Tirante Plataformak. Orain hil bi jakinarazi zion Udalak diru-laguntza %75 murrizteko asmoa. Informazio eta salaketa kanpainari ekin zion Plataformak orduan eta mobilizazioak iragarri zituen. Ondorioz, portzentaia hori murriztu zuen Udalak, eta azkenean, Noviembre Kulturalerako dirulaguntza bere horretan mantentzea erabaki du. Zorionak, lutxanarrok!

Uuribefm
fm 107.8
Gorliz Irratia

BIZKAIA
irratia

BIZKAIA IRRATIA Uribe Kostan

F.M. 102.6 Mhz

www.bizkaairratia.com

Gura duzun lekura heltzeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

IGOGAILUAK
ARLAN
ASCENSORES

Arazoei agur... **Tf. 902 54 08 54**

www.arlan.biz

XXV. ALEMANIAR ARTZAIN TXAKURREN ERAKUSKETA

Txakurren zaletuek egun handia ospatuko dute ekainaren 12an Sopelan. Izan ere, Espainiako Klub Errealaren Bizkaiko Ordezkaritzak artzain txakur alemaniarreko XXV. Erakusketa Monografikoa antolatu du, eta aurten Sopelan izango da, "La casa del Perro" egoitzan, Gatzarriñe kaleko 36an. Ekimena goizeko 09:30ean hasiko da, eta eguerdiko 15:00ak aldera amaituko da. Ehun bat txakur batzea espero dute.

LASTERKETA NATURISTAN IZEN-EMATEA ZABALIK

Uda heldu eta arropa erantzeko gogoia duzu? Parte har egizu Barinatxeko lasterketa naturistan! Aurten uztailaren 2an ospatuko da, eguerdiko 12:00etan. Izen-ematea zabalik dago jada, eta horretarako mezua bidal dezakezu carreranudista@ene-naturismo.org helbidera edo elkartearen web orrian.

Info +: www.ene-naturismo.org/carrera

UKIPEN-PANTAILAK TURISMO BULEGOETAN

24 orduko zerbitzua eskainiko du aurrerantzean Sopelako turismo zerbitzuak. Bulegoen kanpoaldean Udalak ukipen-pantailak jarri ditu, eta bisitari zein sopoloztarrek informazioa kontsultatzeko aukera izango dute: agenda, plano, eguraldia, olatuak, guardiako farmaziak e.a.

ARGIZTAPEN BARRIA SIPIRIKO ITURRIAN

Hainbat barrikuntza egin ditu Udalak Sipiriko iturrian: bonba bi aldatu ditu eta kontsumo baxuko 26 bonbilla barri jarri dira. Aldaketei esker, iturriaren argiztapenaren kontsumo elektrikoa heren bat jaitsi da: 15,12 Kw/o izatetik 5,028 Kw/o izatera igaro da. Era berean, Iturrieta eta Gatzarriñe iturrietan ere hobekuntza lanak egingo ditu Udalak.

Gurpil bikoien jaia

Indian Moto Group taldeak antolatuta, motor kontzentrazioa egongo da **ekainaren 11n**



Hainbat jarduera egongo da: erakusketa, barbakoa, kontzertuak, zezen mekanikoa...

Motorrak berotzen ibiliko dira Indian Moto Group taldeko lagunak ekainaren 11 noiz iritsiko. Egun horretan Sopelako II Motor Kontzentrazioa antolatu dute, eta 300 parte-hartzaile baino gehiago batzea espero dute. Goizeko 10:30ean hasiko da kontzentrazioa. Batu ostean, Armintzaraino alkarregaz egingo dute txangoa, bidean pintxoak jateko lotuko badira ere. 13:30ean erakusketa egingo dute Sopelako udaletxe plazan, eta horren ostean poteoa. 15:00etan barbakoa txanda helduko da (garagardoa doan

izango da). Arrastian motorzaleek jaiagaz jarraituko dute. Zezen mekanikoa-ren eta kontzertuen lekukoa DJ-ek hartuko dute, eta egunari txapela jartzeko AEBtako 66. ibilbide mitikoaren erakusketa antolatu dute.

Kontzentrazioan parte-hartzeko ezinbestekoa izango da izen-ematea: ekainaren 11 baino lehen 9 euro kostako da, eta egunean bertan, 13 euro. Barbakoaz gain, parte-hartzaileek zapia eta partxea jasoko dute. ○

Info +: indianmotogroup@hotmail.com

Guillermo Basañez-Unanue > EEEko teknikaria

"Energia kontsumoa murriztu ostean, hurrengo urratsa energia hori lortzea da"



Hainbat energia barriztagarri erabil daiteke: fotoboltaikoa, biomasa, geotrukaketa...

Ekogunek antolatuta, ekainaren 22an "Energia berriztagarriak zure etxebizitzan" hitzaldia egongo da, 18:30ean Kurtzion. EEE Energiaren Euskal Erakundeko teknikaria den Guillermo Basañez-Unanue sopoloztarra izango da solasaldiaren arduraduna.

—Denok erabil dezakegu energia barriztagarria gure etxebizitzan?

—Bai, baina egoeraren arabera moldatu behar da, ez da gauza bera hirigunean bizitzea edo mendian. Lehenengo urratsa energia murriztea da: gure energia-eskaera murrizten badugu, hurrengo pausoa behar dugun energia hori lortzea izango da. Adibidez, ur bero gutxi erabiltzen badugu, teilatuan eguzki-plakak jar ditzakegu. Energia lar beharko bage-nu, eguzki plakak ez lirateke nahikoa izango energia eskaera horrentzat...

—Eta zer-nolako energia motak erabil ditzakegu?

—Demagun etxe isolatu batean bizi garela; elektrizitate barik. Kasu horretan,

modurik eraginkorrena energia fotoboltaikoa izango litzateke, bateriakaz. Beroa emateko bonbonakaz edo egurrakaz, betiko txapa ekonomikoagaz. Beste modu modernoagoak ere badaude: pellet forma duen biomasa, geotrukaketa.

—Horrelako apostua egiteagatik, herri-tarrek dirulaguntzak jasotzen dituzte?

—Bai, dirulaguntza izaten dute. Potentziaren arabera ematen ditugu, ez kostuaren arabera. Azkenean garrantzitsuenak jendeak instalazioak jartzea da.

«Energia barriztagarrien alde egiten dutenek dirulaguntza izaten dute»

—Gure erantzukizuna ez ezik, erakunde-erantzukizuna ere ez ote da?

—Erakundeek eta batez ere Udalek erantzukizun handia dute, eraikin publiko asko dituztelako eta iluminazioa izaten dute... Etxebizitzetan lan handia dago egiteko, baina Udalek lan handia egin behar dute eremu honetan. ○

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa 6 eta Iberre 9 / 48600 Sopela.
Tf. 94 676 30 12
info@didakhamilton.com

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tf./Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tf. 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA iKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta barrikuntza

Gatzarrine z.g. SOPELA
Tf. 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net



EGUNKARIAK prentsa eta aldizkariak

gura izanez gero, etxera eroango dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
Tf. 94 491 27 34

SENDA VIVARA JOATEKO IZEN-EMATEA ZABALIK

Uztailaren 2an Senda Viva abentura parkera urteera egingo dute Kultur Etxeko lagunek. Egun biko txangoa izango da, eta izena emateko epea zabalik dago: ekainaren 6tik 10era. Santa Ana edo Berangoetako Kultur Etxeetan eman daiteke izena, eta prezioa jardueren eta hotelaren gelaren araberakoa izango da. Berangon erroldatuta dauden auzokideek diru-laguntza jasoko dute. Autobusa uztailaren 2an urtengo da Moreagatik, goizeko 10:00etan. Zapatu arrastia eta domeka osoa parkean igaroko dute. Astelehen goizean, barriz, Oliteko gazteluan bisita gidatua egiteko aprobetxatuko dute. Kultur Etxeko arduradunek nabarmendu dutenez, gomendagarria da lehen eta azken egunetarako janaria eroatea, bidean bazkalduko baitute. Era berean, bainatzeko eta aldatzeko arropa eroan beharko da, parke barruan ur-jarduerak egiteko aukera egongo delako. Animatu!

ERAKUSKETA BI IZANGO DIRA EKAINEAN

Erakusketak gustuko dituenak zer ikusi izango du ekainean Berangoeta Kultur Etxean. Hilaren 6tik 12ra Endika Pino Blanco artistaren erakusketa izango da: olio-pinturak, tenperak, tinta txinatara... Pinoren lekukoa Uribe Kosta adimen-urrituen elkartearen erakusketak hartuko du. Azken erakusketa hau ekainaren 19ra arte egongo da ikusgai, Berangoetako erakusketa gelan.

Garaizar barrikuntzak

- igeltsaritza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

Tf. 944 430 52 43 / 607 952 977 • regaraizar@euskalnet.net
Ilieta kalea 1 • ALGORTA

Etxeko botika ikastaroa

Taupada Guneak antolatuta, **ukendu natural tailerra** izango da ekainaren 14an



Urduliz eta Butroi artean sendabelar bila joango dira

Gutziz naturalak diren ukendu, xaboi, kosmetiko, krema eta dentifrikoak egiten ikasiko dute Berangon ekainaren 14an. Taupada Gunea elkarte jaiobarririk etxeko botika ikastaroa antolatu du egun horretan, 17:00etatik 20:00-etara. Urduliz eta Butroi artean dagoen Gaztañape etxean lotuko dira, eta alde aurretik beharrezkoa izango da izena ematea 629 034 841 telefonoan edo astelehen goizetan Berangoetako Kultur Etxean, ekainaren 10a baino lehen. Prezioa 10 eurokoa izango da, 5 eurokoa Taupada Guneako bazkideen kasu-

an. Egunean bertan, parte-hartzaileek hutsik dauden hiru krema pote eroan beharko dituzte.

Ikastaroagaz hasteko, sendabelarrak bilatuko dituzte Urduliz eta Butroi arteko basoetan. Ana Gutierrez Bacigalupe berangoztar aditua izango da tailer arduraduna. Sendabelarrak batu ostean euskal ohituretan oinarritutako botikak egingo dituzte. Bestalde, lau egun beranduago, ekainaren 18an, jai antolatu dute Lantzarteko landan. 18:00etatik aurrera, familia osoarentzako jokoak eta askaria egingo dute. ○

Orabai batukada > Perkusioagaz eskualdea astintzen

“Zarataren bidez aldarrikapenak ‘gure’ egin ahal ditugu”



Saioak barikuro egiten dituzte Plentzian arrastiko 20:00etan

Belaunaldi eta herri ezberdinetako lagunak batzen dira barikuro Plentziako Orabai batukadaren saioetan. Eskualdeko hainbat jaitan hartu dute parte -azkena, Sopelako Koadrilen Egunean-, eta ‘zarata’ egiten jarraitzeko asmoari eutsiko diote aurrerantzean ere.

—Nondik dator batukada sortzeko ideia?

—Plentziako hainbat kidek Txatungaben be taldearen ikuskizuna ikusi eta lagun baten despedidarako herrian horrelako zer edo zer antolatu behar zela erabaki zuten. Plentzian bazegoen batukada batean jotzen zuen jendea eta Goñi Portalen ikastaro bat egitea proposatu zuten. Ideiagaz aurrera egin eta apurka jendea batzen joan da. Orain dela zortzi urte gertatu zen hau.

—Zein instrumentuk parte hartzen dute batukadan?

—Brasilen sortutako musika estiloa

dugu, baina fusioak gehitzen dizkiogu: samba, reggae eta horrelakoak. Instrumentuen aldetik, repikea, a gogo, caixa, cuica, platinelak, tinbak, tanborina... erabiltzen dugu.

—Kide barrientzat atek zabalik dituzue?

—Bai, atek guztiz zabalik ditugu. Jende

«**Brasileko musika estiloa dugu, baina fusioak gehitzen dizkiogu**»

barria hasi da batukadan eta beti gabilta aldaketakaz, gure ustez hori egitea beharrezkoa delako.

—Zein helburugaz jotzen duzue?

—Ondo pasatzeko eta besteek ere gozatzeko. Kalera urtetan garenean zarata handia sortzen dugu eta zarata horren bidez, aldarrikapenak ‘gure’ egin ahal ditugu. Herri honen aldaketa bermatzeko kalera urtetea beharrezkoa da. ○



AIXERROTA BHI

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK
- NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
- DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
- ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / TF. 94 491 17 86



OINUTSIK

KONTSULTA PODOLOGIKOA
Nahia Andrés Bilbao (nº col. 236)

Zubigane 4
48600 Sopelana
Tf. 94 404 74 20
CITA PREVIA
oinutsik@euskaltel.net



OINAK DITUZU ONGIZATEAREN ZUTABE, OINEZ EDONORA HEL ZAITEZKE!!

Cerca de la salida del metro (a 150 metros). En el mismo edificio de Correos, a la vuelta de Santiveri.

OSABIDE HORTZ KLINIKA

Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96



irati

OPARIAK MODA GAZTEA

Torrene 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com



Abant

Psikopedagogia eta Eskola Orientazioa

Ikaskuntzaren Zailtasunak

(idazketa, irakurketa, ulermena, dislexia...)

Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntza

Basarrate 20 lonja 48991 (Algorta-Getxo)
Tf. 94 404 91 65 - 656 70 31 61

LORE APAINGARRIAK LABORATZEN IKASI!

Ikastaro barria antolatu du Ekogunek ekainaren 14 eta 16rako: "Lore apaingarriak laboratzeko ikastaroa". Ordutegia 17:00etatik 19:30era izango da, eta ikastaroa oinarrizkoa izango da. Helburua lorategi eta terrazetan lan egiteko trebakuntza lortzea izango da, eta honako edukiak izango ditu: loreak eta polinizazioa, hazi estratifikazioa, hazitegiak sortzea...

URDULIZKO FUTBOL ZELAIAN BARRIKUNTZAK

Urdulizko futbol zelaiak aldagela barriak izango ditu irailetik aurrera. Udalak lau aldagela gehiago eta garbiketarako gune bi eraikiko ditu, hurrengo denboraldian Urduliz Futbol Taldeak erabil ditzan. Era berean, komunak, bilera-areto bat, epaile nagusiarentzako gela, epaileentzako beste gela bat eta biltegi txiki bat eraikiko dituzte. Proiektu honen aurrekontua 210.000 eurokoa izango da.

BOST IKASTARO PLENTZIAKO KZGUNEAN

Ekainaren 13tik 17ra bost ikastaro antolatu ditu Plentziako KZguneak, egun bakoitzeko ikastaro bat. Hurrenez hurren, hauek dira landuko diren gaiak: google docs, google sites, sare sozialak, oinarrizko drawa eta segurtasuna eta isilpeketasuna. Txanda bi egingo dituzte: 10:00etatik 12:00etara eta 12:00etatik 14:00etara. Izen-ematea liburutegian egin beharko da.

BARRIKA

Jaietan murgilduko dira ekainaren 23tik 26ra



Jaietako lehenengo ospakizuna San Juan sua izango da

San Juan jaiak ekainaren 23an hasiko dituzte Barrikan, ohikoa den su-festagaz. Jaiak lau eguneko iraupena izango dute, eta adin guztietarako ekitaldiak antolatu dituzte, betiko tradizioei eutsiz. Lehenengo egunean, gaueko 23:00etan hasiko da egitaraua, su eta perkusio ikus-kizunagaz. Era berean, txokolatada eta txurroak egingo dituzte txiki eta ez hain txikientzat. Futbol-7 txapelketak XIII. edizioa ospatuko du aurten, eta ekainaren 25ean izango da, Atxutegi futbol zelaietan.

Gainera, sari-banaketan Athleticen lehen taldeko jokalariek izango dira. Egun horretan txahala erreko dute, gose-ari aurre egiteko.

Urtero legez, Nekazaritza eta Artisautza azoka ez da faltako Barrikako jaietan. Hamaika aldiz ospatu dute jada, eta aurten ekainaren 26an izango da, 10:00etatik eguerdiko 15:00ak arte. Bazkaria prestatzea nahiago dutenek XXXV. sukalki lehiaketan izena emateko aukera izango dute. ○

Eka. 6 - Eka. 24

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tf. 944 911 337

ERAKUSKETAK

LEIOA

► **La Codorniz, umore grafikoa.** Kultur Leioan, ekainaren 26 arte.

GETXO

► **Antzezaleak elkarte.** Algortako Kultur Etxean. Ekainaren 13tik 25era.

PLENTZIA

► **Araldiko eskulan eta ehoziri lanak.** Goñi Portalen, ekainaren 16tik aurrera.

MUSIKA

LEIOA

► **Siroka.** Kurkudi tabernan. Ekainaren 10ean, 22:00etan.

► **Leioako Pop-Rock lehiaketaren finala.** Barandiaran Behekoa Institutuan. Ekainaren 17an 21:30ean. Doan.

► **Travellin' Brothers Orkestra.** Kultur Leioan. Ekainaren 18an, 21:00etan, 6 euro.

► **Leioako Gazte Orkestra.** Kultur Leioan. Ekainaren 22an, 20:00etan. 3 euro.

BERANGO

► **Abesbatzen kontzertua.** Elizan. Ekainaren 10ean, 20:00etan.

GETXO

► **Getxotar Abesbatzen Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainaren 12an, 18:00etan. Doan.

ERANDIO

► **Txistu alardea.** Astrabuduan. Ekainaren 12an, 11:30ean kalejira eta 12:45ean kontzentrazioa Josu Murueta plazan.

► **Erandioko Musika Banda.** Altzagako azoka zaharrian. Ekainaren 18an, 20:00etan. Doan.



Portu Zaharrian egiten dute beti bertso-saio berezia

► Bertsolaritza

Balkoitik balkoira San Juan egunez

Bertsolaritzak hamaika forma dauka, mota askotako bertso-saioak ikusi eta entzutera ohituta daude zaleak: antzokian, gaztetxean, tabernan, poteoan e.a. Izan daitezke inprobisatuak edota aurrez iragarriak; baina gutxitan ikusten da Portu Zaharrekoa bezain bitxia: balkoitik balkoira botatzen dituzte koplak bertsolari bik, plazaren alde batean lehena eta bestaldean bigarrena, aurrez aurre. Ikus-entzuleek behetik begiratzen diete, bien artean. Urte asko dira eta ohitura bihurtu da saioa Portu Zaharrian. Aurten ekainaren 24an izango da, San Juan egunagaz batera. Balkoira igoko dira Julio Soto eta Angel Peñagarikano bertsolariak. Gaueko 22:00etan hasiko da saioa.

• **Non:** Algortako Portu Zaharrian • **Noiz:** Ekainaren 24an, barikua

ZINEMA

SOPELA

► **El último día del cinturón de hierro.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 10ean, 19:00etan.

► **Toy Story 3.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 19an, 18:00etan. Doan.

BERANGO

► **Ice Age 3: dinosauroen jatorria.** Berango Antzokian. Ekainaren 12an, 18:30ean.

PLENTZIA

► **Nomadak TX.** Goñi Portalen. Ekainaren 21ean, 19:00etan.

ANTZERKIA

GETXO

► **Kontularien Kluba.** Algortako Kultur Etxean. Ekainaren 10ean, 19:00etan.

BERANGO

► **Maribel y la extraña familia.** Berango Antzokian. Ekainaren 11n, 19:00etan.

PLENTZIA

► **La gran familia, kale antzerkia.** Astilleron. Ekainaren 17an, 19:30ean.
► **Camping Renove, kale antzerkia.** Astilleron. Ekainaren 26an, 12:30ean.

BESTEAK

GETXO

► **Dantza Eguna.** Algortako Biotz Alai plazan. Ekainaren 10etik 12ra. Doan.

GORLIZ

► **Dantzari Txiki eguna.** Herrian. Ekainaren 11n, egun osoan zehar.

BARRIKA

► **Kamiseta tailerra.** Udaletxeko beheko sailuruan. Ekainaren 11n, 12:00etan.

LEMOIZ

► **Bilera udaleku irekiei buruz.** Armintzako Kultur Etxean. Ekainaren 15ean, 20:00etan.

ERANDIO

► **Bisita gidatuak: Erandio ezagutuz.** Ekainaren 11n Astrabuduan, 18an Martiartu, eta 19an eta 25ean Itsasadarretik gasolinoan.

LEIOA

► **Jota txapelketa.** Errekalde plazan. Ekainaren 19an, 12:30ean.


SOPELA

► **Hitzaldia: Energia berriztagarriak zure etxebizitzan.** Kurtzio Kultur Etxean. Ekainaren 22an, 18:30ean.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIOA
HOZTEKO, GIROTZEKO edota BEROTZEKO INSTALAZIOAK
(ingeniaritza / instalazioa / artapena)
ENERGIA INGENIARITZA
ENERGIA AUDITORIAK
GEOTERMIA

BERANGO (BIZKAIA) vasa@vasa.biz 94 668 1551 www.vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Ttakun eta txirrin

Ttakun-ttakun, txirrin-txirrin eta herriz herri, Txalamobil egitasmoak Algorta eta Hernani lotu zituen maiatzaren 18tik 21era. Edurne González eta Laurita Siles artistek osatutako 'Trini Komandoak' hiru eguneko bidaia egin zuen Hernaniraino, txalaparta eta pekindar bizikleta nahastuz. Algortan, Plentzian eta Armintzan egindako geldialdietan, umeak, bertsolariak, zaharrak... animatu ziren ttakun-ttakun egitera.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Hileta Negurin

XX. mende hasieran

Heriotzak ez du bereizketarik egiten; diruak zorientasuna erosten duela uste dutenei ere, azken hatsaren eguna helduko zaie. Irudian ikus dezakezue Neguriko kaleetan XX. mende hasieran emandako azken agurra. Zaldiak, gurdi ederra, beltzez dotore jantzitako gizon-emakumeak... eta atzean, galtzeko moduko etxeak. Egia da, bai; heriotzak ez du gizarte-maila bereizketarik egiten. Baina agur esan osteko ibilalditxoak gurdian, zaldiak tiraka, egiteko aukera ematen du diruak. Gura duenarentzat, bada zerbait.

GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA

Sepia koloreko gutunazala zein gutunazal zuria hautestontzian sartzeko aukera izan genuen maiatzaren 22an. Datozen lau urteotan Uribe Kostako Udaletan zer ikusi gura dugun erabaki genuen papeleta sartuta (edo sartu barik); hala ere, udal gehienetan herritarren bozkek baino, egun hauetan zein legegintzaldi osoan zehar egin beharreko akordioek erabakiko dituzte botere banaketak eta herrietako plan nagusiak. UKn oraindino azken erabakiak hartu barik daudenean jarri gara hauteskundeak errepasoa egiten; eta eskualdeko aditu biren euren hausnarketa eskatu diegu.

Ateak jo behar

Herriz herri emaitzei begira

Eskoletako ikasgeletako liburuak eta ikasmahaiak alde batean pilatuta utzi eta hautestontzietan lekua egin zieten joan den maiatzaren 22an. Datozen lau urteotan Bizkaiko Batzar Nagusietarako zein udal-letarako gura duguna bozkatzeko aukera izan genuen eta UKn Uribe Kostako udalei begira jarri gara zuri emaitzen bista orokorra emateko asmoz; analisiak eta hausnarketak, aurrerago irakurri ahal izango duzun bezala, Eztizen Miranda eta Josu Amezaga adituen esku utzi ditugu.

Orokorrean, indar abertzaleek irabazi dute eskualdeko herri danetan; Plentziako kasuan Independentiek lortu dute bozka gehien nahiz eta EAJren

zinegotzi kopuru bera izan.


Bilduren sarreraren eraginez batez ere, aldaketa nabarmenak gertatu dira aurreko udal hauteskundeak alderatuz. Uribe Kostako herri danetan indarrez sartu da Bildu (ordezkaritza lortu du danetan) eta alkatetzarako zein etorkizunean herri

absolutuak lortu ezinagatik, alderdi bozkatuenari (kasu gehienetan EAJ, Plentzian eta Sopelan izan ezik) ezinbestekoa izango zaiolako batzuek zein besteak azkordioetara heltzea planak onartu ahal izateko. Sopelan zerrenda bozkatuena izan da Bildu eta Barrikan eta Urdulizen

“Orokorrean, indar abertzaleek irabazi dute eskualdeko herri danetan”

mailako planak onartzeko beteko duen papera erabakiorra izango da kasu gehienetan (Lemoizen izan ezik), gehiengo

zinegotzi kopuruan berdinketa lortu dute EAJgaz (Barrikan EAJtik bozka batera gelditu da Bildu).



Erandio

- EAJ: 4.531 / 10 zinegotzi
- PSE-EE: 2.236 / 5 zinegotzi
- Bildu: 2.112 / 4 zinegotzi
- PP: 1.108 / 2 zinegotzi
- EB: 495 / 0
- Aralar: 27 / 0



Nabarmena izan da indar ez-abertzaleak Uribe Kostan izan duten beherakada, bozka kopuruan PSE-EEren kasuan eta zinegotzi kopuruan PPrenean; azken honen kasuan Bilduren sarrerak eragin du zinegotzi galera nahiz eta herri gehienetan bozka kopuruan ez duen beherakada nabarmenik izan. PP ordezkari barik lotu da Urdulizen, Gorliz, Plentzian eta Barrikan; PSE-EEK barriz, ordezkariak galdu ditu Getxon (2), Barrikan (1), Berangon (1), Leioan (2) eta Erandion (1).

Ezker Batuak Berangon eta Leioan lortu du zinegotzi bana; gainontzeko Udaletan ez du ordezkariarik. Aralarrek ez du ordezkariarik lortu Uribe Kostan.

Alderdi eta herri plataforma txikiek, euren lekua hartu dute Barrikan. Azken urteotan alkatea izan den Juan José Ezpeleta, EAJtik banandu eta IBarrika plataforma sortu du, zinegotzi bi lortuz; bestalde, Berdeek ordezkari bat lortu dute.

“Indar ez-abertzaleek beherakada nabarmena izan dute, bozka kopuruan zein zinegotzi kopuruan”

Gainontzeko alderdi txikiek (PUM+J, Getxoko Independentiek e.a.) ez dute ordezkariarik lortu eskualdean.

Lerro hauek idaztean, oraindino erabakiak hartu barik daude herri askotan. Baina hala ere, aldaketak ziurtatuta daude hainbat herritan; dela alkatetza eskuratuko duena alderdi barria delako (Sopelan, Gorliz edo Plentzian adibidez, horretarako aukerak daude), dela alderdiek aur-

keztutako hautagaiak barriak direlako (Lemoiz, Urduliz eta Sopelako EAJk adibidez hautagai barriak aurkeztu ditu). ○

Getxo

- EAJ: 14.182 / 10 zinegotzi
- PP: 12.978 / 9 zinegotzi
- Bildu: 7.020 / 4 zinegotzi
- PSE-EE: 4.170 / 2 zinegotzi
- EB: 1.067 / 0
- Aralar: 863 / 0
- IGI-GI: 757 / 0
- UPD: 593 / 0
- PUM+J: 360 / 0

Berango

- EAJ: 1.166 / 5 zinegotzi
- Bildu: 1.022 / 4 zinegotzi
- PP: 471 / 2 zinegotzi
- PSE-EE: 353 / 1 zinegotzi
- EB: 219 / 1 zinegotzi



Josu Amezaga > EHUko irakaslea

2011 Udal Hauteskundeak: aldaketa nabarmena Uribe Kostan

Ezin esan Udal eta Foru Hauteskundeen ostean Uribe Kostan gauzak lehengo moduan geratu direnik, aldaketa handiak gertatu baitira, hala herritarren boto joeran nola ordezkartza politikoan. Zalantzarik gabe, eta Hego Euskal Herriko joerarekin bat eginez, Bilduren agerpena da esanguratsua. Duela lau urte EAE/ANV eta EAJk lortutako botoen batuketa baino nabarmen gehiago lortu du, orduko kopurua % 50ean igota. Igoera honek eta legezatzeta lortu izanak etekin ikusgarria eman dio ordezkartza politikoaren arloan, lehen bi indarrek zeukaten zinegotzi kopurua halako hiru lortuta: 14tik 41era pasatuta hain zuzen. Udaletako presentzia horrek, hurrengo lau urtean, herrietako politikagintzan eraginik utziko duela pentsa daiteke. Eta alkatetzaren bat edo beste lortzeko aukera izan lezake, herrian herriko mugimenduen arabera.

Beste muturrean PSEren galera dugu, botoen laurdenetik gora (lau mila boto) eta zinegotzien herena galdu baitu (22tik 15era). Galdutako boto horiek, bestalde, ez ditu PPK eskuratu. Izan ere alderdi honek eskualdeko bigarren bozkatuena izaten jarraitzen du (Bildu hurbil duen arren), baina ez da gai izan oraingo baldintza ezin hobeei etekina ateratzeko: PSEren galera, azken bi urtean euskal komunikabideetan izandako presentzia handiak, eta Estatu Espainiarrean izan duen aldeko olatuak hirurehun boto eskas irabaztea ahalbidetu diote, ez besterik. Pentsa liteke, horregatik, gailurra jo duela boto kopuruan. Bestalde, ordezkartza politikoan bost zinegotzi galdu ditu. Horrekin batera aspaldixotik zuen amets goxoenetako bat urrunduz zaio: Getxoko alkatetza lortzeko itzaropena hain

zuzen. Izan ere batzuen galera eta besteen gora ezinarekin, alderdi konstituzionalistak Uribe Kostako botoen heren batean geratu dira.

Aralar eta Ezker Batuak, nor bere aldetik joanda, botoen ehuneko hogeitau galdutako; ordezkartza aldiz ehuneko laurogei izan da galera, eta 2007an elkarrekin lortutako hamaika zinegotzietatik bi baino ez dituzte mantendu, biak EBren eskutik. Pentsa liteke bi alderdi hauek galdutako mila botoak, oro har, Bildura joan direla, baina horrek oso gutxi esplikatuko luke koalizio honen bost mila botoen igoera. Beste hipotesi bat da Aralar/EBtik Bildura boto gehiago joan izana, baina EBk PSEren galeratik zerbait eskuratu izana. Edozelan ere, seguruenik sektore honi begiratuko dio Bilduk, etorkizunean zorroa handi daitekeen eremu gisa.

EAJk jarraitzen du indar nagusi izaten Uribe Kostan, bigarren indarrari alde handia ateratzen diolarik, eta mila boto irabazi ditu 2007tik hona. Pozteko motiboan artean, Getxoko alkatetza galtzeko arriskua uxatu izana izango dute. Alabaina hori ez da nahikoa izan eskualdean lehengo egoerari eusteko. Izan ere lehen indarra izateari utzi dio Sopelan, ozta-ozta irabazi du Barrikan, eta oso hurbil dauka Bildu Berangon zein Urdulizen. Lortutako ordezkariak dagokienez, galera are handiagoa da: jadanik eskualdeko herri txikienean baino ez du gehiengo absoluturik (Lemoiz), Berango, Erandio eta Urdulizen galdu egin baitu abantaila hori. Duela lau urteko egoerarekin alderatuta, beraz, galera garrantzitsua. Eta duela zortzi urtekoaren aldean are garrantzitsuagoa, orduan gehiengo absolutua baitzuen herri guztietan, Getxon izan ezik.

Udal mailan, Uribe Kosta aro berri batean sartuko dela esan daiteke, beraz. ○



Eztizen Miranda > Kazetaria eta EHUko ikerlaria

Bildu efektuak nor batuko duen zain

Ekainaren 11n osatu behar dituzte udalak, nola osatuko dituzten da herritarren zalantza. Izan ere, hauteskunde kanpainaren gai nagusia izan dira bozketa egunaren osteko hitzarmenak,

eta gai nagusia izaten jarraitzen dute bozketaren ostean. Bestalde, alderdiek gutxi hitz egin dute proposamen politikoen gainean, gehiago, ordea, gai orokorre eta alderdien arteko aurreko itunei buruz. PSE-PP akordioa behin eta berriro salatu dute jeltzaleek, boterea lortzeko alderdikeria dela behin eta berriro errepikatu dute. Horrez gain, udaletako hautagaiak itzalean geratu dira, alderdien buruzagiek hitza hartu dutelako, gutxi esan dutelarik ere datorren agintaldian partiduek egingo dutenari buruz. Hauteskundeak eta gero oraindik ez dute erabaki nola eratuko dituzten hala Gipuzkoako eta Arabako Batzar Nagusiak nola Nafarroako Legebiltzarra. EAJk argi irabazi du Bizkaian, eta Bilduk Gipuzkoan; Araban PPK, baina EAJ eta Bilduren arteko bat-egiteak abertzaleen nagusitasuna ekarriko luke baita Araban ere; Nafarroan, sozialisten esku dago UPN boterean jarraitzea edo ez. Hori horrela, orain hasi dira zenbait alderdik proiektu estrategikoen inguruan eztabaidatzen, kanpainan egin ez badute ere, orain erabakigarritzat jotzen dutelako.

Antzeko egoera bizi dugu Uribe Kostan. Kanpaina izan dela izan dena, abertzalea dela esan du herriak, eta abertzaleak nahi dituela haren buruzagi politikoak. Halere, eragiketa matematikoen bestelako emaitzak eskain dezakete. Nahiz eta boto gehienak EAJ eta Bilduren artean banatuta egon, zenbait herritan PSEk dauka gehiengorako giltza, Odon Elorzak esan duenaren arabera demokraziaren arauak omen dira, hitzarmenen bitartez,

Bildu koalizioaren kontra egitea. Hori bai, EAJk erabaki behar du giltza horiek erabili nahi dituen edo abertzaletasunaren atean jo nahi duen, ate hori irekitzeko prest egon daitekeen seinalean.

Getxon hartuko diren erabakiek agerian jarriko dituzte nazionalisten lehentasunak. Zalantzarik ez dago udal garrantzitsua dela getxoztarrena, horregatik, hain zuzen ere, baliteke alderdiek boterea arrazionalizatzean Getxo esku handiko zonaldea izatea -aurreko hauteskundeetan gertatu den bezala-. Oron buruan, hauteskunde kanpainan erakutsi dutenaren legez, alderdietako buruek erabakiko dute bai aldundien bai udalen botere sakabanaketa, eta botere banaketaren gaineko erabaki guztiak elkarmenpeketasunean hartuko dituzte. Bilduren prestakuntza falta eta hautagaien esperientzia murriztu da gainerako partidu politikoen argudioa instituzioetatik kanpo uzteko koalizioa. Oraindik aukerarik ez dute izan, haatik, erakusteko udalak eta aldundiak gidatzeko kapazak diren edo ez. Areago, Uribe Kostan, behintzat, ez lukete bakarrik gobernatuko. Hots, giltzarria da gainerakoek indarrak elkarganatu nahi dituzten, gero, Bilduk agertu beharko du ea gobernatzeko gaitasuna duen.

Guztiarekin ere, boterea ez ezik, herritarren konfiantza dago kolokan, arriskuan, hobe esanda. Herriak abertzaletasunaren alde egin du, aldaketa nahi duela adierazi eta aldaketa gertatuko den ilusioa duela erakutsi. Horrela, Bildu, EAJ eta, zenbait kasutan, independenteak izan dira hauteskunde irabazleak Uribe Kostan: abertzaleak. Aipatutako operazio matematikoen bitarteko alderdikeriek, ordea, abertzaleen parte handi bat bazter dezakete, baita herriaren ilusioarekin amaitu ere.

Beraz, nazionalistek erabaki dezaten orain zein ate ireki, abertzaletasunarena edo proiektu estrategikoak ziurtatzen duena. ○

Sopela

- **Bildu:** 2.251 / 7 zinegotzi
- **EAJ:** 2.030 / 7 zinegotzi
- **PSE-EE:** 594 / 2 zinegotzi
- **PP:** 427 / 1 zinegotzi
- **Aralar:** 252 / 0
- **EB:** 251 / 0
- **BL-V:** 238 / 0

Urduliz

- **EAJ:** 831 / 5 zinegotzi
- **Bildu:** 706 / 5 zinegotzi
- **PSE-EE:** 147 / 1 zinegotzi
- **PP:** 119 / 0
- **EB:** 95 / 0

Barrika

- **EAJ:** 263 / 3 zinegotzi
- **Bildu:** 262 / 3 zinegotzi
- **IBarrika:** 157 / 2 zinegotzi
- **Berdeak:** 74 / 1 zinegotzi
- **PP:** 37 / 0
- **PSE-EE:** 32 / 0

Plentzia

- **IP:** 855 / 4 zinegotzi
- **EAJ:** 849 / 4 zinegotzi
- **Bildu:** 531 / 3 zinegotzi
- **PP:** 113 / 0
- **Aralar:** 58 / 0
- **PSE-EE:** 45 / 0

Gorliz

- **EAJ:** 1.108 / 5 zinegotzi
- **GIG:** 958 / 5 zinegotzi
- **Bildu:** 683 / 3 zinegotzi
- **PP:** 114 / 0
- **Aralar:** 65 / 0
- **PSE-EE:** 62 / 0

Lemoiz

- **EAJ:** 346 / 5 zinegotzi
- **Bildu:** 255 / 4 zinegotzi
- **PP:** 10 / 0
- **PSE-EE:** 3 / 0



ADELA ETA TERESA



ANTON FRANCO

Hego-haizearen erretratuak

Sarik dioen lez, “gure oroitzenak, itsas galeretako oholak bezala, ez dira itsas hondotan ezabatzen, ez dute inongo porturik helburu... ur gainean doaz kulunka, uhainek eraginak, ezabatu ezin, eta xederik gabe”. Algortako Portu Zaharreko oroitzenak itsasoan kulunka gal ez zitezten, Miren Larrea bertako bizilagunak orain urte asko hasi zen auzokideen erretratuak ateratzen. Hego-haizeak erretratuetan agertzen diren bizilagun gehienak eroan dituen arren, Larreak ateratako argazkiei esker, oraindik orain, testigantza bizia dira. Euren istorioak lehen pertsonan entzuteko, hego-haizea aditu beharko dugu...

Argazkiak: **Miren Larrea Agirre**




CRUCITA




ERMINIA ZARRAGOTIA



MARIA "LA VIGILERA", ANTONI CABEZA "LA VIGILERA", MIREN LARREA, REME URTIAGA, PURITA, MARI CRUZ BRETOS, MARIA UGARTE ETA "LASTER" TXAKURRA



JOSEMARI



JUAN BENGOTXEA



MARI CRUZ ESESUMAGA "PIPI"



MAITE ETA RAMON



MARI 'LA MULATA'




MANOLO DOBARAN ETA JOSEFA 'LA PARAGÜERA'



MARI CRUZ BRETOS



MARÍA 'LA ASTURIANA'



MARITXIN



ROSARIO



NICASIA ETA GIZONA



OLGA IURETA



REME ETA TERESITA



REME URTIAGA



BETIKO
IKASTOLA

Kalitatezko irakaskuntza euskalduna

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelera 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
- Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
- Ikastolen Elkartearen Leioako Ikastola bakarra



Deitu eta informa zaitez
Tlf: 94 464 23 64
94 464 33 07
Fax: 94 464 22 05
Helbidea: Artatza auzoa 84
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
Tf. 94 460 70 84

[zinema]

Bolbora garaia gogoan

Burdin gerrikoari buruzko dokumentala eta zine-foruma **Sopelan**, ekainaren 10ean



Dokumentalaren kartela

Burdin gerrikoaren azken eguna (El último día del cinturón de Hierro) film laburra ikus dezakezu ekainaren 10ean Sopelan. Kinema Zine Eskola eta Trapagarango Sancho de Beurko elkartearen arteko ekimena da. Fran Longoriak zuzendu eta egokitu du, Guillermo Tabernillaren ideian oinarrituta. Iazko maiatzean eta ekainean grabatu zuten Loian.

Kurtzio Kultur Etxean izango da proiektzioa eta ondorengo zine-foruma, 19:00etatik aurrera. Doakoa izango da sartzera, baina gonbidapena eroan behar da. Kultur Etxean bertan eskura dezakezu, baita Udaletxean eta Larra-

basterrako Sopedarinen ere, astelehentik barikura.

Dokumentalean antzeztu dute Espainiako Guda Zibileko pasarte. Horretarako birstutu dituzte Espainiako Armada Nazionala eta Euzkadiko Gudarostea, garaiko jantzi eta armakaz. Filmazioaren argazkiak eta film laburraren trailerra ikusgai daude Sancho

Burdin Gerrikoa ezagutzeko bisitak izango dira ekainean

de Beurko Elkartearen webgunean: www.sanchodebeurko.org.


Uribe Kosta ere izan zen Burdin gerrikoaren parte eta haren aztarnak ezagutzeko bisita gidatuak ere antolatu dituzte, zine-forumaren aitzakia baliatuta. Ekainean egingo dituzte, 11n eta 25ean, zapatua. Goizeko 09:00etan ipini dute urteera ordua Urko kiroldegiko aparkalekuan, Larrabasterran, eta 13:00ak arte luzatuko dira bisitak.

Espainiako Guda Zibilak Euskadin izan zuen eragina ikertzen du Sancho de Beurko elkarteak. Informazioa berreskuratu gura du, datozen belau-naldiek ezagut ditzaten gudaren ondorioak. Horretarako berregite historikoak ere egiten dituzte. ○

www.sanchodebeurko.org

Bluesaren leuntasuna

Ekainaren 17tik 19ra izango da Getxo Blues jaialdia Algortan, belarrien gozamenerako



Javier Vargas gitarrista

Tronpeta soinua zabalduko da Algortan ekainaren 17tik 19ra, Getxo Blues jaialdiari esker. Algortako Biotz Alai plazan eta The Piper's Irish Puben izango dira kontzertuak. Plazan 6 euro ordaindu behar da sartzera, Piper's-en doan izango dira.

Barikuan Javier Vargas Blues Band eta Devon Allmanek joko dute Biotz Alai plazan, 21:00etan. Piper's tabernan, barriz, Los Blues Morning Singers taldea arituko da 23:00etan. Zapatuan ere ordu-tegi berbera izango da, baina taldeak aldatuko dira. Otis Taylor Big Band eta

Corey Harris igoko dira Biotz Alai oholtzara, eta Mara Zydecok abestuko du Piper's tabernan.

Domekan, ekainaren 19an, Biotz Alai plazan baino ez da izango emanaldia, jaialdia ixteko, baina arrastiko 20:00etan. Charmaine Neville Bandek joko du. New Orleans Mardi Gras taldeagaz arituko da Charles Neville artista gonbidatua. Sarrerak eros daitezke BBKren kutxazainetan eta webgunean, 944 310 310 telefonora deituz eta Algortako Kultur Etxean. ○

info+: www.getxo.net/euskera

ehz jaialdia > programa prest!

Uztailerako gitxi falta da eta Euskal Herria Zuzenean festibala ospatuko dute, Heletan. Uztailaren 1etik 3ra luzatuko da eta egitaraua prest daukate dagoeneko. Hamaika ekitaldi eta kontzertu izango da aurten ere. Besteren artean, barikuan joko dute Moorcheba, Nasser, Killers, Estricalla, Anari edo Mojito System taldeek. Zapatuan Ken 7, Shaka Ponk, Chinese man, Split 77, The Rodeo Idiot Engine, Athom Rumba edota Brunken Balordi arituko dira, eta domekan, Prowpuskovik, Betagarri, La Phaze, Norte Apache, Bongo Botrako, Zep, Auras edota Ardibeltza. Bestelako ikuskizunak ere egongo dira eta guztien barri daukazu festibalaren webgunean.

egitaraua: www.ehz-festibala.com

guaitoRock > finalerdiak ekainean

GuaitoRock maketa lehiaketaren finalerdiak hasi dira, eta dagoeneko, Psyko taldea sailkatu da, Algortako Txorimalo Gaztetxean egin zen kontzertuan. Beste hiru finalerdi jokatu behar dira. Lehena izango da ekainaren 9an, Bilboko Kukutza III Gaztetxean. Kale Gorrian, Baltzak eta trim taldeek joko dute. Leku berean egingo dute hirugarren finalerdi baina hilaren 16an, eta Kilaueta, Bajon de Glukosa eta Reborn taldeak lehiatuko dira. Azken kanporaketa izango da ekainaren 18an, oraingoan Romoko Itzubaltzeta Gaztetxean. Nor baino nor arituko dira Ertz, Luppulo, Thream, Urban, Hombre Proyecto eta Kopia Barata taldeak.

www.guaitorock.com

diskoak

Egunero hasten da
Basaki
Elkar



Leioztarren bigarren diskoa da Egunero hasten da. Oraingoan oinarri astunagoz jantzi dituzte doinuak, AEBetako rock modernora hurbiltzeko asmoz. Lan oso melodikoa da, eskurakoa eta zintzoa, azpimarratzekoa da ahotsen tratamenduan zein moldaketetan egindako ahalegina.

Mukaki zpirit
Xutik
Baga Biga



Lapurdin sortu zuten Xutik taldea 2008an eta oso ezagun egin da Euskal Herri osoan. Musikaren bidez jaia alaitu eta martxa eman gura dute. Horretarako baliatzen dituzte ska-reggae, rocka eta gisako doinuak, jendearen poza areagotzeko. Hauxe dute lehen diskoa. Igorren ikus ditzakezu ekainaren 10ean.

Mississippi
Markos Untzeta
Gaztelupeko Hotzak



Hirugarren diskoa kaleratu du eibartar musikariak Robert Johnson *bluesman* mitikoa jaio zela ehun urte bete direnean. Mississippira eroango zaituzte kantu berriek, blues, gospel eta country musikaren lurraldera. Legendaren arabera, Johnstonek deabruari arima saldu zion bidegurutze mitikoan abiatzen da diskoaren ibilbidea.

etorri
eta
ikusii!

ORIXA

liburudenda

Alargorta 8 (Eskola Herria kaleko bar) Tf. 94 491 48 05 Algorta

Getxoko Andra Mari Gasolindegia

Txartel hau aurkezten baduzu
%50eko
deskontua
izango duzu zure autoaren garbiketan

Getxo eta Berango artean
Tf. 94 430 15 00
(15 eguneko epemuga)

I

Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

[liburuak]

Gorlizko natura ezagutuz Fanos elkartearen liburuak herriko fauna eta flora ezagutzera emateko

Gorliz oso berezia ei da naturari dagokionez, "ikusteko eta ibiltzeko asko dago". Ondasun hori dena ezagutzera eman gura dute Fanos Naturalista Elkarteak lagunek. Urte mordo eman zuten herriko espezieak ikertzen eta errolda egiten. Dena batzea otu zitzaizen eta bost liburuk osatuko dute proiektua, bost urtean. Dagoeneko kaleratu dituzte lehenengo biak, euskaraz eta gazteleraz, bi hizkuntzak liburu berean: *Udalerriaren azterlan naturalista baten sarrera* eta *Itsaslabarrak*.

Herriko fauna eta floraren ezagutza hedatzea dute helburu, horregatik saiatu dira lengoia ulerkorra erabiltzen, izen zientifikoak ekidiezina izan arren: "Jendeak turismo txikia egitea eta naturari merezitako balioa ematea gura genuke, natura ezagutzea eta babestea; ez da egiten eta pena da", azaldu du Anton Melendez elkarteak kideak.

Betiko lagunek osatzen dute taldea. Zaletasunak elkartu eta elkarte gisa izena eman zuten orain urtebete, Udalaren laguntzagaz, proiektu hau garatzeko. "Denbora librean egindakoari urtenbidea eman diogu, beste barik".

Udalerriaren azterlan naturalista baten sarrera lehen liburua ikerketaren sarrera da, datorrena azaltzera dator. Hurrengo



Bost liburuk osatuko dute egitasmoa

liburuetan hasi dira erakusten habitat desberdinak. Bigarren liburuan landu

Itsaslabarrak, artadiak edota dunak landuko dituzte liburuetan

dituzte *Itsaslabarrak*. Lantzeko konplexuena izan ei da, "ez da oso ezaguna eta bertara sartzeko zaila da". Ondorengo liburuetan habitat "normalagoak" erakutsiko dituzte, baina zehaztu barik daude: artadiak, dunak edota zelaiak izan litezke. Taldekide bakoitzak espezialitate banatan sakondu du, gero lan-taldean lantzeko, elkarren arteko afizio baitute natura. ○

liburuak



Xola eta Ameriketako izeba
Bernardo Atxaga

Frein
Xola bere askatasuna defendatu gura izan duen txakurra izan da beti. Baina horretarako arau batzuk bete behar zituela bazekien. Izebaren etxean aldiz, ez dago araurik. Esnatu, bazkaldu zein lo hartzeko ordutegirik ez dago. Anarkia hutsa da hori!



Joan da negua
Mikel Ibarguren
Susa

Beste behin ere, poesia liburu bat Susa argitaletxearen eskutik. Bere barneko negua joan egin dela erakutsi gura izan du Ibarguren. Bizi izan duen garairik txarretan idatzi ei du liburua: "hitza ipini diet nire arranguri eta sentipen gordinenei".

[kirola]

Jose Antonio Gallego > Getxo triatloi

"Gure hurrengo urteko erronka gaztetxoakaz lan egitea eta triatloi-eskola sortzea da"



43 lizentzia banatu dute jada Getxo Triatloiko lagunek

Hiru urteko hutsunearen ostean, iazko azaroan Getxo Triatloi taldea sortu zuten barriri, eta Jose Antonio Gallego izendatu zuten presidente. Txirrindularitza, igeriketa eta atletismoa batzen duen kirola da triatloia. Hurrengo ikasturteari begira hainbat erronka izango dute.

—Zelan erabaki duzue taldea barriri sortzea?

—Iazko uztailan Getxo Kirolak-etik deitu zidaten, Berangoko taldean zegoen hainbat getxoztarrek Getxon taldea sortu gura zuelako. Horregatik, taldea barriri sortzea erabaki genuen. Azaroaren 5ean batzar ofiziala egin genuen eta 20 bat kide batu ginen. Geroztik kide gehiago batu gara eta 43 lizentzia banatu dugu.

—Adin guztietakoak batzen zarete?

—Ez, orokorrean 23 urtetik aurrerakoak, 52 urtera arte. Batik bat beteranoak etortzen dira, aurretik beste kirol batzuk egin dutenak: errugbia, futbola, igeriketa, txirrindularitza...

—Triatloia praktikatu aurretik, ohikoa da beste kirol batzuetan aritzea...

—Beno bai, baina joera hori aldatzen ari da, eta egun zuzenean triatloian aritzen diren kirolariak ere badaude.

—Emakumeak ongi etorriak dira Getxo Triatloi Taldean?

—Bai noski, baina orain arte ez dira lar animatu. Aurreko denboraldietan neskak egon dira, baina gutxi, orain arte txapelketetan emakume oso gutxi egon delako.

«Ekainaren 19an gure lehen ekimena antolatu dugu: duatloia Faduran»

Baina gero eta gehiago dira, eta momentuz taldera bi animatu dira.

—Zein izango da hurrengo urteko erronka nagusia?

—Gaztetxoakaz lan egin gura dugu; triatloi-eskola sortu gura genuke, belaunaldi barriak hurbil daitezten. Triatloian hasteko adinik egokiena 10 urtekoa da. Gazteak triatloira hurbiltzeko asmoz, ekainaren 19an adingabekoen proba antolatu dugu Faduran. Gure lehen ekimena izango da. ○

Info +: www.getxotriatloi.org

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kiroi moda



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l.



Tf. 94 430 52 00 Kasune 18 · ALGORTA

Gorka Velasco > komikigilea

“Norbaitek irakurri edota ikusi arte ez da osatzen artistaren lana”

Gaur egungo BeHIak. Hezkuntzaz hausnartzen liburua aurkeztu du Gorka Velascok Alhondigakomik topaketan, ekainaren 4an. 2008an argitaratu zuen eta BHIko irakasle bizitzako pasarteetatik hartu zuen inspirazioa biñetak sortzeko.

—Shakirak waka waka (edo *vaca vaca*), baina zuk zure behiak ere badituzu, egun berean izan dira kontzertua eta aurkezpena.

—Bai, hitz jokoa da. Liburuko biñetako ere hitz jokoa da; BeHIak. Ogibidez naiz irakasle BHIIn, urte hartan nengoen ikastetxerako logoa egiten hasi nintzen erdi txantxetan, eta behiaren hitz jokoa otu zitzaidan. Irudiari buruzko ideiak metatzen hasi nintzen eta edozein ikastetxerako baliagarri zirela ohartu nintzen. Ideia asko garatu nituen, horietatik 125 edo daude liburuan, ideia bat biñeta bat. Denak dira hezkuntza eta irakaskuntzari buruzko hausnarketak, egunerokotasunagaz lotuta eta elkarren independente. Prozesu luzea izan da eta egitasmoa auto-ekoiztia da. Arte Bizkarra Elkartek laguntzen dit zabalpenagaz.

—Beraz ogibidean eta egunerokoan hartu duzu inspirazioa?

—Bai, egunerokoan ideia asko sortzen dira adi egonez gero. Badakit oso begirada bitxia eta pertsonala dela. Bigarren esanahia dauka esaldi bakoitzak; base-riari buruz hitz egiten du, baina horren atzean BHIko ikastetxea dagoela jakinik, nik ziurtatzen dut bigarren esanahia. Irakurlearen hausnarketak ematen dio zentzua nik egindakoari.

—Umorea nabarmenduko da orduan.

—Umorea puntu batez institutuen egoera islatzen duen proposamen grafikoa eta



<http://gorkavelasco.blogspot.com>

poetikoa da liburua. Hausnarketa proposatzen dut, baina irriño bategaz. Batzuetan egoera gordinak eta garratzak dira, eta gaiari adarretatik ondo heltzeko, umore puntua behar dugu. Hezkuntza gai oso serioa da, baina gaiari heltzeko

“Batzuetan egoera gordinak eta garratzak dira, eta gaiari adarretatik ondo heltzeko, umore puntua behar dugu”

umore puntua ondo dago. Esaldiek berez ez diote asko, baina irudiaren laguntzagaz txinparta sortzen da.

—2008an argitaratu zenuen, baina Alhondigakomik auto-ekoiztien topaketan ere aurkeztu duzu.

—Komikiaren inguruan ekintzak egin dira eta auto-ekoizpena egiten dugunok ere parte hartu dugu, nik hogeitertetik gora daroat komikigintzan.

—Auto-ekoizpena izanda, beste egitasmoetan murgildu aurretik hau amaitu behar, ezta?

—Orain egitasmo hau daukat eskuartean, liburua mugitu eta zorrak guztiz kitatu arte, baina hasi barik daukat

oraindik doktore-tesia, eta badaukat materiala komikiaren esparrura ekartzeko. Gaia da “Euskal sukaldaritza barriaren ikuspegi eskultorikoa”. Izan ere, beti erabiltzen dut komikiaren mintzaira nire lanetan. Kontua ez da saldu beharra, erakustea baizik; norbaitek irakurri edota ikusi arte ez baita osatzen gure lana. Nire proposamenak jendea kitzikatzea eta zer pentsa ematea da helburua. ○

Fredi Paia

Begizkoena

Gure eskualdean, Europako hamaika lekutan legez, izan da, eta bada, sorginkeria eta madarikazinoek gaixotasunak erakartzeko indarra daukielako ustea. Inori *madariketu* esateak, edo *txarto gure ixetek*, osasun ondorio kaltegarriak ekar eikezan, gure arbasoen eretziz. Tontakeria handia begitandu litxakigun arren, Masaru Emoto ikerlari japoniarrak uraren memoriaren ganean egindako ikerketek, pentsakera horrek oinarri zientifikoa eduki ahal dauala iradokitzen dabe. Hau da, gure sentimenduak berba nahi begiradaren bidez adierazteak, jentea gaixotu edo osatu legike. Adierazten dogunaren arabera ingurukoak goibeldu edo alaitzen doguzan modu berberean. Gaur, begiradaren bidez adierazten dogunak eragin ahal dauanaz, *begizkonez* egingo dogu berba.

Uste zaharra da pertsona batzuek, euren begirakunearen bidez, gizaki eta animaliei kalte egiteko indar misteriosu baten jaube dirala. Jose Migel Barandiaranek, bere Mitologia Hiztegiaren *betadur* berbea dakar, begiaren indar magikoa adierazteko. Gure eskualdean *begizkone* esaten jako begiradaren bidez sentimendu negatiboak adieraztearen indarrak osasunean egindako kalteari. *Txarto gure daunek ezkerreko begiez adituten dau* dinoe gure aitite-ama-mek.

Begizkoaren sintomak emozionalak dira hasikera baten, gerora fisiko bihurtzeko. Begizkonea jasan dauanak bizipoza galtzen dau, tristatu egiten da eta umea dan kasuetan sarri egiten dau negar. Ostein, jateko gogo barik lotzen da, hau da, *jakandu iten da*. Argaldu eta erkinduz doa, epe baten barruan osatu ezik, hil egiten dan arte.

Alkarrizketatu doguzan aitaita amamen seintzaroan bizi-bizirik egoan begizkoagazko bildurra. Euren gurasoek ardua handiz babesten ebezan. Horretarako *kuttunek*



Txarto gure dauenak ezkerreko begiez adituten dau

ipinten eutsiezan. Kuttunak bihotz itxurako poltsatuak ziran. Barruan *kirikolatzen haginek, seinen tripeko zilen zatitxu bet, iketz apur bet* eta San Juanen ebangelioaren

«Begizkoa osatzeko lehenengo gauza gaixoari gaineratik izara zuria ipintea zan»

zatitxuak sartzen ebezan gure lekukoek. Horrez ganera, gure eskualdetik Deustuko San Felicisimo eleizara eroaten ebezan seinak. Eleiza horrek begizkoaren gatxetik babesteko indar berezia ei dauka.

Baina behin gaixotu ezkerreko, *begizkone* osatzen ekien andrazkoengana jo beharra egoan. Sei urtetako ikerketan andrazkoak izan dira aurkitu doguzan begizko osatzaile gutxiak. Eta bide batez, azpimarratu dai-

gun, *parterek* izandakoak edo parterren alabak izan dirala danak.

Begizkoa osatzeko lehenengo gauza gaixoari gaineratik izara zuria ipintea izaten zan. Ostein, osagileak beruna urtzen eban zartagin baten. Atoan beruna zartaginetik ur hotzera pasetan zan. Horreetara beruna solido bihurtzen zan eta osagilearentzat berebizikoak ziran irudien forma hartzen eban. Berunak orratzen itxura hartzen bae-ban ziurra zan begizkoaren eragina. Orratz horreen irudiak irakurtzen jakinda ateraten eben nor izan zan *begizkone* egilea. Beruna behin eta barriz urtu eta solidotzen zan bihotz baten forma hartu arte. Orduan, gaixoa osaturik egoan.

Akabateko, osagileak erabilitako beruna eta ura errekarra isuri eta esaldi hau erre-pikatzen eban gatxa aldendu eiten: *errekatati ibaire eta ibaiti itxosora*. ○

[badaukazu non aukeratu]

Taberna eta jatetxe asko dugu gurean. Gida honetan aukeraketa xumea aurkeztu gura dizugu, aniztasuna albo batera utzi barik, eta gozaten has zaitezten.



Portu Zaharra bar
Portu Zaharra kalea 35
48991 Algorta - Getxo (Bizkaia)
Tf. 94 460 20 33
portuzaharra@portuzaharra.com
www.portuzaharra.com



SOLAETXE
Eguneko menua **Jatetxea** Karta
Asteburuko menua Oilasko erretegia
Sarriena auzoa 166 - 48940 Leioa (Bizkaia) Tf. 94 463 24 87 Fax. 94 431 69 55 www.restaurantsolaetxe.com



La Triangu.
Arriatera 83, SOPELANA Tf. 94 676 34 07



berezi
Hanburesak Ogitartekoak
Sanwichak Plater konbinatuak
SABINO ARANA 34 48640 - BERANGO
ESKAERAK: 94 668 10 64 (BERTAN JASOTZEKO)

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz



txakoli mota gane tx.
txakolina
leioa-Unbe errepeidea 34 (Akarlanda Parkea) Gohierri-Erandio
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimotagane.com



UNAI TABERNA
WWW.UNAITABERNA.COM
94 466 16 61
URGULL KALEA 2, (ALGORTA)



Cafeteria COSMOPOLITA
Andres Larrazabal 5, 48930 Areeta-Getxo
Tf. 94 608 51 34 - Mug. 609 44 08 80



JAN-TOKI ORMAZTEBAL
Eguneko menua
Menu bereziak
Karta
Erreserbak:
94 476 2389
607 21 89 61
LUTXANA-ERANDIO



GURE ETXEA taberna
HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

[zure iragarkia hemen]

[zure iragarkia hemen]

Zure taberna edo jatetxea hemen agertzea gura baduzu ipini gugaz harremanetan:
94 491 13 37
publiuk@aldizkaria.biz

[gaurko aukera]

Xabier Madrid > Zine-pintxoak txapelketako irabazlea

“Betidanik dut gustuko pintxo sukaldaritza eta jarraituko dut lehiaketetara aurkeztzen”



Ergelen afaria filman oinarritutako pintxoak egin zuen

Maiatza akabuan ospatu zuten Cine-gourland jaialdia Getxon. Hainbat ekimen eta lehiaketa egin zituzten, Zine-pintxoak txapelketa tarteko. Malakate tabernako Xabier Madriderak irabazi zuen *Ergelen afaria* pintxoari esker.

—Bigarren ez irabazi duzu lehiaketa.
—Oso pozik nago, ez nuen espero bigarren ez irabaztea.
—*Ergelen afaria* pintxoak egin duzu, zelakoa da?

—Platerean marraztu ditut tipula eta txipiroi tintazko marrak eta gainean ipini dut moldeko ogi biribil frijitu bat. Haren gainean jarri dut Idiazabal gazta errulo bat tipula krema, txakolin gelatina, txangurroa, Tio Pepe gelatina, *vi-*

chysois eta txipiroi salta apur batez beteta. Salmoi arrautzak ere ipini dizkiot. Platera hornitzeko rulo barruko osagaiak erabili ditut.

—Nola otu zitzaituzte?
—Bestelako pintxoak pentsatuta neuzkan, beroak izango zirelakoan. Baina lehiaketaren oinarriek zioten pintxo hotzak izan behar zutela eta azkar pentsatu behar izan nuen.

—Zer harreman du filmagaz?
—Zenbait exekutibok tipo ergel batzuk gonbidatzen dituzte afaltzera, euren lepotik barre egiteko. Kasu honetan, azkenean exekutibo pintxoak sortu duen ergela naiz ni. Betidanik dut gustuko pintxo sukaldaritza, eta jarraituko dut lehiaketa hauetara aurkeztzen. ○

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • Tf. 94 464 41 25
AREETA



KONTXI ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Aituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri 10, ALGORTA
Tf. 94 491 02 93



TXIBERRI edantokia frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15



Zurikaldai
JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO



BASARTENA
URDULIZ
Teléfono: 946 761 128



Taberna Berri
Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf. 94 430 64 93



ITXASGANE
prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Ariñuze z.g. • Tf. & Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

María Jesús
ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA
Alangobarri 10
Tf. 94 491 08 21
ALGORTA **HARTU TXANDA**

GOIZEAN
"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixareriak
Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
Tf. 94 430 22 13 Tf. 94 460 02 88
GETXO ALGORTA

KOSKA
irratia 108 fm

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Hemen dira, badatzo sanjuanak!
Jaia, txosnak, kontzertuak,
bokatak... eta akelarrea! Dantzatzeko
edo saltoka ibiltzeko patioan surik
eginez gero, kontuz ibili!

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Udako solstizioa iristear da eta otsoen
moduan uluka hasiko zara gau
magikoan. Baina dagoeneko entsezen
hasi behar al duzu? Auzokideak
zaunka daukazu.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Azkenean hartuko duzu merezitako
urteko lehen bainua hondartzan. Ura
oraindik fresko egongo da, baina zuri
bost! Sardina emango duzu uretan
plisti-plasta!

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Zorioneko udabariak bereak egingo
ditu laster, baina ez zaitez tristetu,
uda sasoi ederra izaten da eta! Oso
ondo hasiko duzu, bizitzari irribarre
egiten diozu, eta hark zuri ere bai.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Urteak joan, urteak etorri, eta zu beti
bezala, zoriotsu eta alai. Ondo dago
ateratzea, lagunakaz egotea eta ondo
pasatzea, baina ez duzu uste etxekoek
zu ikustea eskertuko luketenik?

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Ibilaldian ederto pasa zenuen eta
urtebetez gustura baino gusturago
ospatu zenuen. Gainera, azterketak
amaitu dituzu, zer gehiago eskatu
behar diozu bizitzari?

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Zenbat ikasgai utzi duzu ekainerako,
bost, zortzi? Lasai egon, hori ohikoa da
eta! Baina ez loak hartu, uztaila eta
abuztua bertan daude eta askoz gehiago
gozatuko dituzu danak gaituz gero.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Andra Mari ko jaiak bete-betean
harrapatu zintuzten, edo hobeto
esanda, zuk harrapatu zenituen jaiak,
hura izan zen parranda! Laster datoz
sanjuanak, prest?

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Hainbeste urte loteria jokatzan eta
azkenean tokatuko zaizu, zorionak! Non
gastatuko dituzu 30 euroak? Hitz
emandako opari guztientzako lain izango
duzu?

META



(Irailak 17 urriak 16)
Enamoratu zinenetik ez zara beragandik
aldendu, elkarriz lotuta zaudetela ematen
du. Hainbeste maitasun eta
gozotasunegaz betekada hartuko duzu
azkenean...

HAZIA




(Urriak 17 azaroak 15)
Hiru hilabete jo eta su ikasten ibili zara,
beste ezertarako betarik barik, eta
etekina eman du ereindakoak. Zein
ondo! Orain beste hiru hilabete
daukazu galdutakoa berreskuratzeko!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Zorioneko udabariak bereak egingo ditu
aste batzuk barru, baina ez zaitez tristetu,
uda ere sasoi ederra izaten da eta! Oso ondo
hasiko duzu, bizitzari irribarre egiten diozu
eta hark ere egingo dizu.



NORA EUSKAL HERRIA

Bideak zabalduko dizkigu gure lurraldeak miatzeko eta ezagutzeko.


Eskuratu KIOSKOAN:
Hilabetero 2,5€ ordainduta
BERRIA egunkariarekin batera

ETXEAN:
Harpidedun eginda, hilabetero etxean
urtean 24€ ordainduta.
Kioskoan baina %20 merkeago.

Harpidetza egiteko:
TELEFONOZ: 943 30 35 54
POSTA ELEKTRONIKOZ: harpidetza@nora.aldizkaria.info
WEBGUNEAZ: www.nora-aldizkaria.info



HITZ GURUTZATUAK



LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuma

1. Noka, genioke. 2. Amorratzeraino zirikatatu. 3. ... gabe, atertu gabe, eten-gabe. Kristauen topaguneak. 4. Zitzadak, eztenkadak. Bihi, garau. 5. Kanpo, landa. Okoko. Berrogeita hamar, zenbaki erromatarren arabera. 6. Eduki, ukan. Garaia, goratasun handikoa. 7. Zaplaztekoak, zapladak. 8. Potasioaren ikur kimikoa. Behialako piratek hain gustuko zuten edari alkoholdun. Austriako hiria, Mur ibaiaren ondoan. 9. Isuri aditzaren ondorio. Titanoaren ikur kimikoa. 10. Nire, neure. Mamitua, gauzatua.

Goitik behera

1. Gara, haiei. 2. Ondorioa. Eztai-nuaren ikur kimikoa. 3. Zein unetan? Antonio ..., gipuzkoar idazlea (1903-1977), Egan aldizkariaren zuzendaria izana. 4. Iridioaren ikur kimikoa. Gailur, gain. 5. Nahastura trinkoak. Itxura. 6. Irudi baten kopiak, kopiatu nahi diren paperak edo oihalak beste paper edo oihal baten gainean jarrit egiten direnak. Herri hizkera, zer. 7. Gaixo. Alokairu, akura. 8. Nazarko. Kontsonantea. 9. Larru. Ezeztatu. 10. Gai bakuna, zilarraren koloreko metala. Berako auzoa.

Soluzioa

V	U	I	R	E	Z	E	N	E	
I	I	E	Z	I	R	U	S	I	
Z	V	H	G	N	O	H	K		
K	V	O	K	V	I	H	V	Z	
V	U	I	V	A	N	V	Z	I	
T	H	V	O	K	O	I	V		
E	T	V	K	V	L	Z	I	Z	
K	V	Z	I	T	E	I	V	T	
I	Z	V	R	A	R	A	M	O	A
N	V	A	N	K	E	N	I	G	



F. JAVIER URRETUXIA "PAGIKO"K UTZITAKO ARGAZKIA

ez hain gaztetxoak < bilatu eta irabazi > gaztetxoak

Zelan du izena
Albuma atalean
argazkitan
erakutsi dugun
egitasmoak?

> Aurrekoaren erantzuna: Eskalada

> Irabazlea: **Udane Magunazelaia***

*deitu telefonoz: 944 911 337

*Naturako zein
elementu da protagonista
San Juan gauean?*

- **Airea**
- **Sua**
- **Ura**

> Aurrekoaren erantzuna: Bost

> Irabazlea: **Nahia Barrena***

*deitu telefonoz: 944 911 337

SARIA

NORA



bilabete-kariaren sei bilabete-ko harpidetza doan

SARIA

BERRIA



*"Musika munduko jolastokian"
Fermin Muguruzak prestatutako
musika bilduma bikaina*

Bittor Egurrola

ALGORTAKO SAN NIKOLASEKO "ACCIÓN CATÓLICA" TALDEA, 1941/42

Portu Zaharreko mojen ikastetxeko barruko patrioko argazkian dugu gizonen taldea osorik (funtzionamendurako, adinaren arabera hiru azpitaldetan banatuta). Emakumezkoen taldea ere horrela antolatuta zegoen. Getxoko Santa Marian, Algortako San Inazio eta Areetako Mesedeetako elizan ere bazeuden "Acción Católica" taldeak. Norberaren kristau heziketa zen mugimendu honen oinarria: bilerak, hitzaldiak, gogoeta egunak, elizkizunetara joatea...; azken hau garrantzitsua zen, beraientzat igandero goizeko 08:30ean egoten zen meza bat, Vicente González arabar-errioxar parrokoak emanda. Ondoren, Portuko mojetara gosaltzera joan, ekintza ezberdinak egin eta ordu batetarako guztiok etxean bazkaltzeko prest. o

0. Javier Ugarte abadea 1. Ignacio L. de Uralde 2. Félix Estancona 3. Patxi Kamiruaga 4. Alberto Arteta 5. Joseba Torrontegi 6. Roberto Ruesgas 7. Ignacio Suarez 8. Javier Aristegi 9. Javier L. de Uralde 10. Manu Uribe 11. Sabin Olabarria 12. Andrés Intxausti 13. Kepa Atxurra 14. Juan Ángel Uriarte 15. Pedro Trincado 16. Anton Sopelana 17. Jose Manuel Agirre 18. Joaquín Garate 19. Félix Landa 20. Jesús Aristegi 21. Francisco Urretxua 22. Iñaki Olabarria 23. Karmelo Moragues 24. Román Larauogoitia 25. Pedro Mendivil 26. Ángel Bueno 27. Manolo Sánchez 28. Juan Luis Moragues 29. Felix Hormaza 30. Juan José Rivas 31. Jose Luis L. de Uralde 32. Alfonso Landajo 33. Tomás Moragues 34. Josan Sancho 35. Josu Urrutia 36. Jose Ignacio Salaberri 37. Ortega 38. Joseba Elorriaga 39. Barandika 40. Jose M^a Maguregi 41. Agustín Banillo 42. Antonio Sánchez 43. Román Rivas 44. Juan M^a Hernani 45. Pedro Atejada.

[aitormenak]

ARANTXA URRETABIZKAIA > Idazlea

“Denbora ematen badidazu, guztia barka dezaket”

Testua: **Julen Nafarrate** Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini egizu zeure burua berba bitan.

Emakumea, librea.

Orain zarena izango ez bazina zertan gura zenuke jardun?

Lorategiak diseinatzen.

Zein da zure ametsetako bat?

Nobela on bat idaztea.

Animalia izango bazina, zein izango zinateke?

Sentitzen dut, baina ez zaizkit animaliak gustatzen.

Gorrito duzun topikoa?

Askatasunari, emakumeoi eta zaharrei buruzko hamaika topiko.

Zein da biharko egunkarian irakurri gura zenukeen berria?

Hondarribiko alardea berriro ere publikoa dela eta, beraz, danborra jotzen utziko didatela.

Irakurri duzun azken liburua?

Natasha Walterren *Muñecas vivientes* liburua.

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Denbora ematen badidazu, guztia barka dezaket.

Zer edo nor eroango zenuke zugaz irla isolatu batera?

Ordenagailua, wifi eta guzti.

Inoiz irakurriko ez zenukeen liburua?

Edozer gauza irakurriko nuke.

Azkenaldian egin duzun erokeriarik handiena?

Etxean txakur bat onartzea.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Gure etxea.

Zein galderari ez zenioke inoiz erantzungo?

Ikusiko zenuenez, badakit galderei ihes egiten. ○

LABURREAN— Maiatzaren 26an Getxon izan genuen Arantxa Urretabizkaia (Donostia, 1947) idazlea, Egizuk antolatzen duen ‘Irakurzaleon Txokoa’-ren eskutik. Donostiarrak 3 *Mariak* bere azken eleberritari buruzko nondik norakoak azaldu zituen bertan. 1979. urtean *Zergatik panpox* bere eleberririk ezagunena plazaratu zuenetik, Urretabizkaia hainbat lan kale-ratu ditu: itzulpenak, argitaletxeetarako lanak, zinemarako gidoiak, hedabideetako kolaborazioak eta poesia liburuak ere idatzi ditu. UKn prestatu dizkiogun galderei aurre egiteko ez du poesiaren beharrik izan!

Getxo ezagutzeko ibilbideak



Ezagutu nahi duzu Getxoko flora, fauna, paisaia, aspaldiko lanbideak eta hori guztiori zelan ageri den Getxoko izenetan?

ETORRI BISITA GIDATUETARA!



Kostaldekoko Getxo

Eguna: Ekainaren II · Ordua: 9:00ak · Tokia: Etxetxu

IZENA EMATEKO EDO
INFORMAZIO GEHIAGORAKO:
688 635 350 bulego orduetan
getxo.toponimia@gmail.com
Ibilbidea 2-3 ordukoa izango da.
Euskaraz izango da.



Getxo
bizi ezazu

GETXO & BLUES 23

BIOTZ ALAI PLAZA (Algorta) BIZKAIA
Ekaina // 2011 // Junio

PROGRAMA

17 **ostirala**
viernes 21.00 h. 6€

JAVIER VARGAS BLUES BAND

Gonbidatu berezia / Invitado especial

DEVON ALLMAN

LOS BLUES MORNING SINGERS

The Piper's Pub
23.00 h. (Dohan/Gratis)

18 **larunbata**
sábado 21.00 h. 6€

**OTIS TAYLOR BIG BAND &
COREY HARRIS**

MARAYA ZYDECO

The Piper's Pub
23.00 h. (Dohan/Gratis)

19 **igandea**
domingo 20.00 h. 6€

"NEW ORLEANS MARDI GRAS"

CHARMAINE NEVILLE BAND

Gonbidatu berezia / Invitado especial

CHARLES NEVILLE

Info: www.getxo.net
Tel. 94 4914080

sarreraren salmenta **venta de entradas**
BBK-ren ordaintzako iruzkitzearen bidez en los cajeros de subterráneo de BBK
944 310 310 o por teléfono 944 310 310

bbk

bbk

metro bilbao

Getxo

Getxo

REGIOPROS BILBAO

EUROPEAN
BLUESUNION

EPA
DFB